



uk

39. zenbakia / 2003 martxoak 30

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Txus&Lu.T. Sergio Martín.
6. PLAZA. Iritzia, Gorka Orueta. Leihatila, Josu Esnaola. Photoshop, edicionexts@euskalnet.net.
7. LEHEN ETA ORAIN. Neguriko tren geltokia.
8. TALAIA. Beste begirada bat.
10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopela 18. Berango 20. Gainerako herriak 22.
23. AGENDA.

SAKONEAN

24. ALBUMA. Gereizpeak. Asier Mentxaka.
26. BERBETAN. Iribar. Unai Brea.
28. ERREPORTAJEA. Gortizko animalientzako zentroa.
30. ERREPORTAJEA. Badator Korrika 03.
32. ERREPORTAJEA. Galipota gurean.

KULTURA ETA AISIA


34. ZINEMA. Oskar Fernández-en zutabea eta Ibon Antuñano.
35. MUSIKA. Top manta euskalduna.
36. IRAKURGAIK. Esti Ezkerraren zutabea eta Unai Elorriaga.
38. SAREAN. Internet Iker Merchán-en eskutik.
39. KOMUNIKAZIOA. Argia astekaria.
40. EKOLOGIA. Sreiber muskerra eta autoen kutsadura.
41. TXANGOIA. Arbolea, Gonzalo Iribamegaray.
42. OSASUNA. Umeen sukarra eta nahaste obsesibo konpultsiboak.
43. JANTZI. Gizonezkoentzako bainu-jantziak.

EUSKARAZ

44. URIBERTSOAN BARRENA. Ekaitz Larrazabali elkarrizketa eta gainera bere bertsoak. Algortako Bertsolari Eskola.
46. AKABUKO PUNTE. "Denbora kontuk", Urtzi Iglesias. Xabi Bilbaoren "Gure berbakere" zutabea.
48. EUSKARA. Berriak, elkarrizketa...

AMAITZEKO

50. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoren errezeta eta Itsaso Aranaren ardoari buruzko lezioa. Non jan pintxo bat? Adibidez, Sopelako Laiak tabernan.
52. KOMIKIA. Dogan Gozel.
54. HOROSKOPOA.
56. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
57. FLASH BACK. Beca Grafic lantegiko kideak, 1971. Urtzi Iglesias.
58. AITORMENAK. Joserra Gartzia, Eunatze Serrano.



26 José Angel Iribar



3 Miren Malaxetxebarria

Berbetan

Euskal futboleko leienda bihurtu zuten bere gelditu itzelek eta bere segurtasunak. Beragaz berbetan egon ginen Ibaiganen.



28 Galipota gurean



30 Badator Korrika 03



37 Unai Elorriaga



AZALA: Asier Mentxaka



zure **dirulaguntza** behar-beharrezkoa dugu!!!

Boluntzarreta

BBK 2095 0121 10 9102483676

sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta
HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48990 GETXO
 e-mail: ukaldizkaria@telefonica.net / Posta Kutxa 171
 Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Unai Brea, Jon Urresti, Urtzi Iglesias, Eunatze Serrano
FOTOGRAFIA: Asier Menbeka
TESTUEN ORRAZKETA: Xabier Bilbao
KOLABORATZAILEAK: Bittor Egurrola, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Algortako Bertsolari Eskola, Iker Merchán, Esti Ezkerra, Nagore Etxebarri, Oskar Fernández, Josu Etxepare, Iratxe Agirre, Eduarne Ugarte, Xabier Buerxuea, Patxi Diaz, Gonzalo Ibarnegaray, Bertots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte
MARRAZKILARIAK: Gorka Vázquez, Mixelko Uranga, Dogan Gozel, Iñigo Mirantes
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)
HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / Inprimategia: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1678-00
ISSN: 1576-6799

Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago
 © Boluntzarreta
 Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen Topaguneko partaide da



BIZARRA LEPOAN
 Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du
 Itxasgane Errexa / Karitateri 1
 94 491 43 57 / 48990 Algorta



TOPAGUNEA



GETXOKO UDALA
 Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du



Leioako Udala
 Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuiko dirulaguntza jaso du



BERANGOKO UDALA
 Aldizkari honek Berangoko Udalaren dirulaguntza jaso du



ERANDIOKO UDALA
 Aldizkari honek Erandioko Bertsots Euskaraz elkartearen laguntza jasotzen du



Bizkaiko Foru Aldundia
 Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du



Bizkaiko Foru Aldundia
 Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du

UK

Behar beharrezkoak ditugu zuen dirulaguntza

BBK2095 0121 10 91 02483676

Boluntzarreta

gugeu

Badok hamahiru

Badator Korrika, dio UKren zenbaki honetako erreportaje baten izenburuak. Badator Korrika beteteranoa, bai, eta ez euskararentzako momenturik goxoenean. Gaur egun, euskalgintzan ari den edonor, zalantzan bizi da, “ausartuko ote dira nire aurka?” itauna beti gogoan. Euskara berarentzako ere ez dira garai onak, EAEn ezagutzak gora egin arren, erabileraren gaineko datuek bestelako errealitatea irudikatzen duten honetan. Eta, zer esan Nafarroako eta Iparraldeko egoera latzez?

13. Korrikaren antolatzaileek iraganari begiratu gura izan diote geroari baikortasun handiagoz ekin diezaioGUN. Joan den mendeko 60 eta 70eko hamarkadetan, frankismo betean, artista, intelektual eta herritar talde batek euskararen alde egindako lan itzela gogora ekarri dute, euskararen alde aritzea (baldintza gogorretan aritzea, gaineratu genezake) gaur goizeko kontua ez dela kontuan eduki dezagun. Korrika dator, eta guztiok behar dugu kalean, beste euskal pizkunde baten lehen urratsak ematen. Korrika, baina ez presaka.

UK-ko lantaldea

gutunak

HEZKUNTZA SAILAK OZTOPOAK JARTZEN DIZKIO EUSKARAZKO IRAKASKUNTZARI GETXON

Hurrengo ikasturteari begira otsaila matrikulazio hilabetea izan da haur hezkuntzan. Beste udalerri askotan bezala, Getxon euskarazko irakaskuntzaren aldeko kanpaina egin izan da, izan ere duela urte asko onartutako legeetan argi adierazten da 16 urtekin derrigorrezko hezkuntza epea bukatzerakoan, gazteek hezkuntza ofizial biak ahoz eta idatziz ondo erabiltzeko moduan menperatu behar dituzte. Helburu hau, haur eta gaztekoen eskubidea dena, ez da betetzen ikasketak A ereduan egiten badira. Aspaldi ondorioztatu da legez ezarritako helburu eta eskubide garrantzitsu hau ereduaren bitartez ez dela inondik inora bermatzen, eta hezkuntza arloko sektore zabalek euskarazko irakaskuntzaren aldeko aldaketa sakona aldarrikatzen ari dira duela urte askotatik hona. Bitartean ereduaren sistematik indarean dirau eta matrikulazio garaian euskarazko irakaskuntzaren aldeko kanpainak ezinbesteko tresna bilakatu dira. Horrekin batera instituzio publikoek eta bereziki Hezkuntza Sailak Bizkaiko Ordezkaritzaren bitartez, euskarazko hezkuntzak duen eskaera zaindu eta bitartekoak eskaini beharko lituzke.

Azken ikasturte hauetan aldiz Hezkuntza Sailak oztopoak jartzen dizkio Getxon euskarazko irakaskuntzaren bilakatzeari eta gurasoek eurentzat D eredua eskatu duten haur asko eta asko erderazko irakaskuntzara desbideratzen ditu halaber. Planifikazio falta eta borondate politiko falta salatu nahi ditugu. Gobela Ikastolak urteak daramatza espazio faltagatik eskaera jaso ezinik eta oraindik ez da irtenbide bat zehaztu. Romo ikastetxeak D ereduan eta B ereduan aurrematrikula egina duten dozenaka 2 urteko haur ezin izango ditu jaso. Hezkuntza Sailak eskaera urria duen A eredua mantentzera behartzen du urtero urtero Romo ikastetxea.

A eredua Hezkuntza Sailaren kuttuna da Getxon aspaldiko partez eta Udala Gobernua, bere kompetentzia ez denaren aitzakipean, ez ari da ezer egiten duela urte batzutatik hona datorren egoera zuzentzeko. Euskarazko irakaskuntzaren aldeko kanpainak egitea ondo dago eta beharrezkoa da, baina zertarako balio du eskaera jasotzeko bitartekoak ez badira jartzen?

Egoera salatzarekin batera Getxoko Sozialista Abertzaleak Udala Taldeak exijitu egiten dio Hezkuntza Sailari, espagnolismo beltzenaren presioaren bitartez agintzen zaiolari obeditu ordez, euskararen kalterako den planifikazio ezaren politika errotik alda dezan, eta atzerapenik gabe bitartekoak jar ditzan datorren ikasturterako Getxon D ereduan aurrematrikulatuta dauden haur guzti guztiok euren gurasoek eskatu duten irakaskuntza mota eduki dezaten. Udalak ere ezin du ezikusiera egin eta arduratu egin behar da behingoz Getxoko haur eta gazteek euskara izan dezaten, guztion eskubidea baita. / **Getxoko Sozialista Abertzaleak Udala Taldea**

goierritarrak



AREETA LASCA SKATEPARK, 2009KO ABENDUA

Lu.T&Txus / Argazkikoak eskualdeko skater aitzindariak eta mitikoak dituzue: Txus eta Lu.T . Oso ezagunak dira biak inguruan eta kanpoan bai skate gaineko abileziagatik eta bai kirol honen alde egin duten lan itzelaigatik ere. Irudian “bikoitz” bat egiten ikus ditzakezue, Txus *grind*-ean eta Lu.T bere gainetik hegana *fs air*-batean. Jauzi oso garxa eta beldurgarria. Argazkia *Emisión* skate aldizkariako (harpidetzak 943 646 264) propio hartu zuen Sergio Martinek Areeta Lasa skateparkean joan den abenduaren 13an, barikua zen. / Argazkia: Sergio Mart n

Leihatila

> Josu Esnaola

Ez da erraza

Lehengo zapatuan tabernara joan nintzen gosaltzera eta ohiturari jarraituz erdaraz eskatu nion kafesnea zerbitzariari. Berak ere erdaraz erantzun zidan. Kafesnea hartzen ari nintzela alboan neukan gizonak euskaraz egin zion eta honek euskaraz erantzun. Harrituta galdetu nion zerbitzariari ea euskalduna zen, eta baietz, berari euskaraz egiten badiote euskaraz erantzuten duela.

Gero etxera heldu eta egunkarian irakurri nuen eredu euskaldunak nagusi direla gure Erkidegoan, Uribe Kostan 200.000 lagun garella eta horietatik 50.000 euskaldunak. Arratsalde osoa buruko minez eman nuen, beharbada ardoa izango zen.

Egia esan errazagoa da Egunkariaren aldeko bilkuretaragertzea, seme-alabak eredu euskaldunetan matrikulatzea, Korrika eta antzekoetan parte hartzea egunero-egunero edonon eta edonorekin euskaraz saiatzea baino. Baina lagun batek dioen legez, nork dio euskalduna izatea erraza denik? 4

Iritzia

Hasi berria den Iraken aurkako erasoaren zilegitasunaz iritzia eskatu diogu Gorka Orueta EHUko Nazioarteko Harremanetako irakasleari

Legez kontra



«Ekintza armatu “prebentiboa” ez da bidezko defentsa, indarra legez kontra erabiltzea da»

Bidezko defentsak ez du Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren baimenik behar, baina inor erasotzeko eskubide honetan oinarritzen den estatuak beste estatu baten eraso armatuaren helburua behar du izan, eta hori ez da oraindik gertatu. Horrela, ekintza armatu “prebentiboa” ez da bidezko defentsa, indarra legez kontra erabiltzea da, eta baldintza jakin batzuetan, ekintza erasokortzat har daiteke. Horrez gain, Segurtasun Kontseiluaren baimenik gabe estatu talde bat Estatu Batuekin elkartzen bada ekintza militarra aurrera eramateko, ekintza horrek alde batekoa izaten jarraitzen du. Aldebakartasuna ez da estatu kopuruaren arabera neurtzen. Nazio Batuen eginkizuna norberaren gain hartzean datza eta horrek erakunde honi ez dio batere onik egingo, Segurtasun Kontseiluaren izena, ospea eta sinesgarritasuna ez badio belzten.


1441 ebazpenak Iraki gogorarazten dio zeintzuk diren bere betebeharrak: desarmatze prosezua burutzea eta behar beste kolaborazioa eskeintzea, eta betetzen ez baditu, ondorio larriak jasan ditzake. Ez du zehazten, ez azkenengo erresoluzio honek ezta aurrekoek ere, indarra erabili behar den Irakek desarma aurrera eramaten ez badu. Horretarako eta Iraken desarma egiaztatzeko ikuskapen indartuak martxan jarri dira, eta ikuskapen horien ebaluazioa Segurtasun Kontseiluaren aurrean aurkeztu behar ditu ikuskatzaileen nagusiak. Nazioarteko komunitateak lagundu behar du eginkizun horretan eta ez ikuskatzaileen lana oztopatu, hauxe bukatu aurretik 1998an gertatu zen bezela.

Bakearen aurkako mehatxua agertzen denean ez da berehala indarra erabiltzen mehatxu hori eragozteko, ez da halabeharrezko ondorioa, azkenengo errekurtsioa baizik. Gaur egun ikuskapen indartuek eskaintzen dituzten aurkerak azkenegaino eramaten utzi behar dute, indarra erabili aurretik. Iraken gaitasun armamentistikoak ez da inolaz ere orain hamabi urtekoa bezalakoa, Segurtasun Kontseiluak behartzeko neurriak hartu nahi dituenean Nazio Batuen Kartaren arabera behar dute izan eta neurri horiek indarraren erabilera aurreikusten dutenean ezin dute uste edo susmoetan oinarritu, frogak behar dira.

Egia da Irakek hainbat arma kimikoren eta bakteriologikoren deuseztapenaren inguruan ez duela frogarik aurkeztu eta hori da ikuskatzaileek nazioarteko komunitatearen laguntzaz egin behar duten lana. Irakeko herria Sadam Huseinengandik askatzeko presatzen ari den makinaria belikoak erregimen demokratikoa eraman dezake baina herri hori dagoeneko prezio altuegia ordaintzen ari da hamabi urtez jasan dituen isun eta debekuen ondorioz. 4

Gorka Orueta Estibariz (Nazioarteko Harremanetako irakaslea EHUUn)

[lehen]



Matxalene etxea

[orain]



Iraganez doa denbora* beti / NEGURIKO TREN GELTOKIA

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

photoshop > Osborne zezena Berangon



Argazkia: Asier Mentxaka / Manipulazioa: UK

begizorrotz > zein da gure antipoda?

Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoaren arabera, lurreko toki batez ari garela, munduan zeharo haren bestaldekoa den lekua da antipoda. Beste modu batera ere azal daiteke. Esaterako, munduan inor zuzandik ahalik eta urrunen ihes egin nahi izango balu, antipodan topatu luke aterpe hori. Gure eskualdearen kokapen zehatza munduan hauxe da: N-43° 21m 48,58 seg / W-3° 01m 0,43 seg. Eta gure antipodena beste hauxe: S-46° 38m 11,42 seg / E-183° 01m 0,43 seg. Gure antipoda zehatza itsasoko puntu galdu bat da. Jendea bizi den herririk hurbilena Zelanda Berriko Chatman irlak dira, gure antipodatik 238 km-ra. Tentagarriak, erakargarriak dira beti antipodak, ezta? ^m

Uribe Kostaren antipoda Zelanda Berria inguruan dago



173 traktoreetako bat, beharrea

datua > 173 traktore Getxon

Ez da datu txarra. 40.000 motordun ibilgailu baino gehiago dago Getxon (44.565, hain zuzen). Gehienak autoak dira, jakina. Traktoreak, berriz, 173, osoaren %0,39. Getxoko udalerrian baserriko bizimoduak daukan presentziaren adierazle bikaina izan daiteke traktoreen datu hau. Asko ala gutxi dira? Hona gure proposamena: irudika itzazue 173 traktoreak, bata bestearen atzetik, Algorta edo Areetako kaleetan protesta ekintza bat egiten, edozein arratsaldeko zazpitan. Kontuan hartzeko moduko %0,39, zalantza barik. ^m

zer da hau? >

Getxo eta Berango arteko muga



Ezkerretara B, eskumatara G. Horra hor, modu grafiko eta argian adierazita, udalerrri biren arteko muga. Azkorri inguruetan egin dugu argazkia, etxe bateko lorategian. Hamaika bider entzun dugun istoriotxoaren etxea izan daiteke: herri baten lo egin, bestean gosaldtu, eta hortzak garbitzean, hanka bat Berangon eta bestea Getxon. Bestalde, aukera ederrak eman ditzake etxe ondoko belarditxo pribatua udalerrri biren artean banatuta edukiteak. Txakurraentzako etxola egin behar dela? Bada, udaletxe bietara jo, eta txakur-etxolen gaineko zergarik merkeena hautatu dezake etxe eta txakur eta lorategien ugazaba zorionekoak. Eta oraindik dago mugek ezertarako balio ez dutela esaten duenik! ^m

Azkorri inguruan dago seinale hau

kale izendegia > Luis Bilbao Libano



1902an Leioan jaio zen doktore honek 25 urte zituela irabazi zuen Basurtuko Ospitale Zibileko laborategiko oposizioa. Osakidetza euskal osasun zerbitzua egituratu zuen eta Euskal Unibertsitatearen sortzaileetako bat izan zen. Baina Gerra Zibila piztu zenean, Bilbao Libanok Iparraldera jo behar izan zuen. 1941ean, Dakarren egonaldi labur bat egin ondoren (Pasteur Institutuko laguntzaile izan zen han), Venezuelara jo zuen; herrialde hartan Elkar Sorosteko Euskal Elkarte sortu zuen. Trantsizioaren ostean, EHUK Honoris Causa doktore izendatu zuen. 1992an Leioako Udalak herriko kalerik garrantzitsuenetako bati haren izena ematea erabaki zuen. ^m

Argazkian, Luis Bilbao Libano kalea

bazen > Plentziako marea errotak

Errotek garrantzi handia izan dute Euskal Herriko historian. Ezagunak dira oso, gure erreken ondoan martxan egondako ur-errotak eta baita haize-errotak ere (hor ditugu, besteak beste, Getxoko Aixerrota eta desagertuta dagoen Areetakoa). Baina Bizkaian bazeuden bestelako errotak ere, marea-errotak, hain zuzen ere; hauek itsasoko marea gora-beherak baliatzen zituzten martxan egoteko. 1802 urteko hiztegi geografiko baten eta 1885ean Azkarragak idatzitako "Historia de Bizkaia" lanean agertzen den legez, Plentzian, horrelako bi egon ziren. Lehenengoa, Errotaberri izenekoa, XVII. mendean eraiki zuten eta 1920 urtera arte lanean ibili zen. Egun erabat desagertuta dago. Bigarrenak, Errotazar edo Gazteluondo zuen izena, Plentziatik irtetzeko zubiaren ondoan zegoen eta ondo irauten dute oraindik eraikinak eta aldaparoak. ^m

Plentziko Errotazarra zena zaharberritu zuten



**BISITATU
GURE DENDA!**

MOROTXO

**Kantxa
Kirol moda**



**350^{m²}
KIROLERAKO
GUZTIA!!**

**URIBE KOSTAKO
KIROL
DENDA**

**TORRENE 4
ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA
TF. 94 491 18 82**

Itsasoa ontzi batean

Dena ondo badoa, **uda hasieran** zabalduko da Getxoko Kirol Portuan **Abra Aquarium**, jendeari **itsasoaren nondik norakoak** ahalik eta modurik egiazkoenean **ezagutaraztea** helburu duen egitasmoa

Aspaldiko ideia batetik sortu da **Abra Aquarium** izeneko akuarioa. Azaroan hasi ziren beru egokitzeko lanak Getxoko Kirol Portuko eraikin batean, eta ekainean-edo ikusteko moduan egongo da, **Fernando Gorostiaga** getxoztarrak esan digunez. Bera da, Txema anaiagaz batera, proiektua aurrera atera duenetako bat, itasoarenganako maitasunak bultzatuta.

Txema Gorostiaga biologia irakaslea da EHU'n eta 19 urte daroaz Ibaizabalek itsasoan daukan eragina aztertzen. Fernando anaia enologoa da, baina itsasoaren zale itzela da. Duela sei urte hasi ziren, garaje batean, akuarioak egiten. 2000n, EHUko Enpresa Haztegiaren laguntzari esker, Sistemas Acuariológicos Marinos enpresa sortu zuen Fernandok. Orduantxe hasi zen gorpuzten Abra Aquarium.

“Guk geuk asmatutako itsas-korronte sis-

Ezaugarri batzuk

- Abra Aquarium lehendik existitzen zen eraikin batean egongo da. Erakusketak 380 metro koadro edukiko ditu, eta zati bitan banatuko da: alde atlantiarra (azaleraren %60, gutxi gorabehera) eta alde tropikalak.
- 120 espezie arrain, beste horrenbeste ornogabeko eta hamaikatxo alga mota egongo dira akuarioan.



Muxar bi Fernando Gorostiagaren aquariumean. Behean, Abra Aquarium-a izango dena

tema bat erabiliz, ura mugitzen hasi ginen, benetako itsasoan gertatzen den bezala”, diosku Fernandok. Sistema horren bidez, Abra Aquariumeko bisitariak itsasoko bizitza zelakoa den ikusi ahal izango dutela iragartzen du Fernando Gorostiagak. “Inoiz ikusi ez diren gauzak erakutsiko ditu”.

«Guk geuk asmatutako itsas-korronte sistema bat erabiltzen dugu»


Akuario barruko erakusketak *Bizia itsasoan, Bilboko Abra eta biodibertsitatea* izena edukiko du. “*Hasieran behintzat hala izango da. Denboraz, edukiak berritu behar dira*”, azaldu du Fernandok. Etor-kizunari begira, baliteke Abra Aquarium

aitzindari moduko bat izatea, litekeena da eta, Algortako Portu Zaharrea Bizkaia osorako akuario handiago bat eraikitzea. m



Animalia artean

Juan Mari Azkue, txakur-hezitzailea



Argazkian, Juan Mari Azkue

la Berangorekin mugan, eta Leioa eta Erandiotik ere ez oso urrun, dauzka Juan Mari Azkue getxoztarrak etxea eta lantokia. 60 urte dauzka, eta azken 33otan ehiza-txakurrak hazten eta hezitzen ibili da, gero saltzeko. Hori izan du lanbide bakarra azken 15 urteotan; aurretik, txirindulari profesionala izatera ere heldu zen.

“*Jaiotzatik hazten ditut, gero saltzeko*”, dio Juan Marik. 200 txakur dauzka, eta ez da erraza, aldarrikatzen duenez, guztiak ondo gobernatzea: “*Sena behar da honeta-*

rako; zeozer ikas daiteke, baina jaiotzatik eduki behar da sena”. Esaterako, txakur bat noiz gaixotzen den igarri behar da, edo zeintzuk ez diren kaiola berean ipini behar, elkar hil ez dezaten. Lanbideak gastu asko sortzen dizkiola dio Juan Marik, baina bizitzeko adina ateratzen duela ere bai. Gaur egun, hainbat urteko lanak eman dion izen onari esker, nazioartean ere saltzen ditu txakurrak. Hori gutxi balitz, 30.000 eper dauzka etxe inguruetan. Hazi eta saltzen ditu, gero ehiza ditzaten. m

GALIPOTA GARBITZEKO CAMARIÑASERA BIDAIA

Iazko abenduan Getxoko gazte talde bat Galiziako Camariñas herrira abiatu zen, hango hondartzetan Prestige petroliountziak isuritako fuela garbitzen laguntzeko. Orain, talde berak bidaia berria antolatu du ia bertan daukagun apirila honetarako. Hain zuzen, 11tik 15era egingo da bidaia hori.

Antolatzaileek abenduan joan ziren 100 bolondrezkoak baino gehiagok izena emango duten itzaropena agertu dute. Horretarako, autobus bi bete gura dituzte (150 lagun guztira), eta beraz, deia egiten diete elkartasunezko ekintza honetan parte hartu gura duten guztiei. Zeu bazara horietako gat, lehenbailehen bi telefono zenbaki hauetako batera deitzea besterik ez daukazu: 606 781 833 (Ander) edo 651 023 699 (Endika).

Kontuan hartu bolondrezkoak ez dutela material berezirik eroan behar, Camariñaseko udaletxea arduratzen da eta horretaz. Getxoko taldea etengabe ari da galiziar herri hartako udaleko ordezkariakaz harremanetan.

GETXOKO UDALETXEA, GERRAREN AURKA

Getxoko udaletxeak, bere azken osoko bilkuran, ezetz esan dio Iraken aurkako gerrari, Sozialista Abertzaleak taldeak aurkeztutako mozio bat aintzat hartuta. Udaletxeak gerra horren erantzuleei inongo laguntzarik emateari uko egin dio, eta herritarrei dei egin gura die haren aurka egin litezkeen ekimenetan parte hartzeko, mozioaren testuak adierazten duenez.



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- 1970az geroztik altzariak diseinatzen.
- Orain ere, armairuak neurrira.
- 200 m²ko erakusketa berria: Telletxe 4 (T: 94 460 71 62)

Zatoz!

Telletxe 15 • Algorta • T: 460 42 44

Egunkaria

Hainbat batzorde sortu dira herrian

Joan den martxoaren 18an Egunkariaren aldeko batzordea aurkeztu zen Areeta eta Erromon, lehenago Getxon sortutakoaren bidea jarraituz. Batzorde honen bidez, aukera eskaini gura zaie euskarazko egunkari bakararen defentsan beharrezko jarduteko gogoia daukatenei. Martxoaren 18an Erromoko Kultur Etxean egindako ekitaldian, egunkariko langileen egoeraren berri eman zen, eta batzordeak berak aurrerantzean jarraituko dituen ildoak erabaki ziren. Laster, euskari eta adierazpen askatasunari egindako eraso latzaren aurrean, Getxon batzorde gehiago eratuko direla espero da. ^m

Erromo-Areetako batzordearen aurkezpena



GETXOKO ITSUEK SEMAFOROAK ENTZUNGO DITUZTE

Ondorengo hilabeteetan, tresna berezi batzuk banatuko dira itsuen artean, semaforoetan ipinita dauden soinugailuak piztuko dituztenak. Botoi bat sakatuta, itsuek errepidea zeharkatu dezaketen ala ez jakin ahal izango dute, semaforoak halan adieraziko die eta. Guztira, ehun tresna baino gehiago emango dira. Egitasmoa duela urte batzuk eratu zen plan baten barruan dago. Horren arabera, elbarritasunen bat daukatenei erraztasunak emango zaizkie hiritik ibili ahal izateko.

Miren Malaxetxebarria > Gobela ikastolako zuzendaria

“Ez gara fio Hezkuntza Sailarekin, beti berandu dabil”



Argazkian, Miren Malaxetxebarria

Gernikar honek hamar urte daromatza 260 ikasle eta 23 irakasle dituen Gobela ikastolako zuzendari. 1965an sortutako ikastetxeak tokirik ez dauka egun, eta arazo larri honen gainean egin dugu berba Mirenegaz.

—Noiz hasi zen Gobela ikastolak daukan gabezia hau?

—Duela bost urte inguru. Harrezkeroztik asko handitu gara eta 2 eta 12 urte bitarteko ikasleen kopurua handitzen joan da urterik urte. Beraz, ditugun eskabideei behar bezala erantzuteko ez daukagu tokirik.

—Eta horrek zelako kaltea eragiten dio ikastetxeari?

—Ba ezin ditzakegula hartu plaza eskatze-
ra datozen ikasle guztiak. Otsailan egin zen aurrematrikulan urte biko 9 neska-mutil geratu ziren kanpoan, Gobelan sartu ezinik. Guk uste dugu getxoarrek euskarazko irakaskuntza publikoa izateko esku-bidea daukatela eta behar beste plaza eskaini behar zaiela.

—San Ignazio ikastetxeke eraikineria joatearen aldekoak zarete?

—Bai. Iazko azaroaren 29an Eusko Jaur-laritzako Hezkuntza Sailak mahaigaineratu zigun irtenbide hori eta onartu egin genuen. San Ignaziok oso ikasle gutxi ditu, hemen sartuko lirake eta gu hara joango ginatke tokia dagoelako. Baina eurek ez zuten gura Gobelara etorri, antza.

—Zer gertatu zen?

—Aurkeztu zitzaigun irtenbidea izan zen San Ignaziokoak hona etortzea eta Larrañazubi eskolarekin bat egitea (biak A ereduak direlako), baina Larrañazubi-koek hori ez zuten onartu. Orduan jakin genuen ezingo ginela San Ignaziora aldatu. Bilerak eskatu genuen, ea zer irtenbide emango ziguten jakiteko, baina oraindik ez digute bat ere eskaini.

—Hala ere, ondo kostata, lortu duzue bilera edukitzea Hezkuntza Sailagaz.

—Bai, martxoaren 19an izango da. [Elkarrizketa hau bi egun lehenago egin genuen] Ez dakigu zer esango diguten, baina erantzun bat eta konponbide bat espero ditugu, eta hori zelan gauzatuko den idatzita ikusi gura dugu.

—Zelako harremana daukazue Ángeles Iztuetak zuzentzen duen sailagaz?

«Tokirik eza dela-eta, ezin ditugu eskaera guztiak hartu»

—Ez gara fidatzen. Zelan fidatuko gara egun batean gauza bat esaten digutenean eta gero atzera egiten dutenean? Gainera, Hezkuntza Saila beti berandu eta “suak itzaltzen” dabil, eta guk ez ditugu irakaskuntzako arazoak horrela ulertzen, aurreikusitako behar dira eta plangintzak askoz aurreratik egin. ^m



Punta Galeakoak, martxoaren 9an Andra Mari elizan egin zen aurkezpenean

Punta Galea elkartearen 2003ko denboraldia abian jadanik

Getxoko Punta Galea txirindulari elkarteak ekin dio aurtengo denboraldiari. Taldeen eta babesleen aurkezpenaren ostean, martxoaren 22an egin zuten lehenbiziko lasterketa Urdulizen; guztira, hamar antolatuko dituzte urria arte. Beti bezala, denboraldiko hitzordurik garrantzitsuena uztailaren 31n izango da, orduan ospatuko delako Getxoko 58. Zirkuitua – *Ricardo Otxoa Oroitzarrea*.

Elkartea 1975ean sortu zen eta egun 9 eta 71 urte bitarteko 94 lagun biltzen ditu guztira. Berangon bizi den Iñigo Mentxaka algortarra da presidente 1994az geroztik. Punta Galearen helbururik nagusia garai-penak lortzea ez izan arren, hamaika bereganatu dituzte Bizkaia, Euskadi eta

Espainian; gainera, 1998an txirindularitza eskola onena izendatu zuten.

Txirindulari gazteen bila

“Gazteriarekin lan egitea”, hori da txirindulari elkarte honen goiburua, eta horretarako hiru urte daromatze neska-mutil berriak erakartzeko kanpainak eginen. “Oraindik ez dugu lortu desio dugun emaitza, baina kirol-zuzendariak gogotsu ari dira lanean Punta Galeako gazteen kopurua handitzeko asmoz”.

Punta Galea txirindulari elkarteak Algortako Illeta kaleko 10. zenbakian dauka egoitza, eta barikuro ateak zabalik ditu nahi duenarentzat, arrastiko 19etatik gaueko 22etara. ^m T: 94 430 76 31

LASTER HASIKO DIRA EREAGAKO HONDARTZA TXAPELKETAK

Datorren apirilaren 27an, eta Kirik enpresak antolatuta, Hondartza Txapelketen hamabigarren edizioa hasiko da Algortako Ereaga hondartzan. Aurton lau kirol izango dira dagoeneko tradizio handia daukan lehiaketa honetan: futbola, errugbia, sokatira eta boleibola. Lehen bien kasuan, taldeek bosna lagun edukiko dituzte. Antolatzaileek esan dutenez, 850 lagunek parte hartzea espero da, 110 taldetan banatuta. Adinaren arabera, sei maila desberdin ezarri dira, 13 urte dauzkatenetik 31tik gorakoetara. Hondartza Txapelketak maiatzaren 18ra arteko asteburuetan jokatuko dira, zati bitan. Lehenengo, ligaxkak eta, ostean, finala. Kirol bakoitzean lortutako emaitzak kontuan hartuta, talde bakoitzak puntu kopuru bat eskuratuko du, eta horrek emango du azken sailkapena.

Apirilaren 4a arte eman daiteke izena, **94 491 17 46** telefono zenbakira deituta edo www.kirik.com web orriaren bitartez.

FADURA WATERPOLO TALDEA, MAILA GALTZEKO ZORIAN

Euskadiko Waterpolo Federazioak aditzera eman berri duen arau baten arabera, klub guztiek behoko mailetako taldeak eduki behar dituzte. Horrek arriskuan jartzen du C.N. Fadura lehen mailan jokatzen jarraitzea, nagusien taldea baino ez dauka eta. Ume talde bat sortzeak arazoa konponduko luke baina, taldeko arduradunek adierazi dutenez, hori ez da hain erraza, entrenatzeko espazioa ez daukatelako soberan, eta klubak igeriketari ematen diolako lehentasuna. Fadura emaitza onak lortu ditu lehen mailako azken denboraldiotan.

SATISTEGI



ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

Txinako

euskaldun bat Leioan

Erromon bizi den 12 urteko Hui Ming Zheng neska txinatarrak ia urte bi daratza Leioako Lamiako ikastetxean; orain, LHko 6. mailan dago. Baina harrigarriena da Hui Ming-ek gure hizkuntza ondo menperatu duela hain denbora gutxian. Maila on horren erakusle ona dugu orain gutxi irabazi duen sari bat, euskaraz idatzitako ipuin bati esker.

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailak antolatzen duen *Azterkosta* izeneko ekimenaren barruan lortu du saria Hui Ming-ek. Bere ipuinak (*"oso poetikoa eta berezia"*) itsasoan du oinarria eta arlo ekologikoari arreta berezia eskaini dio.

Lamiako ikastetxeak lehenengoz hartu du parte *Azterkosta* egitasmoan (guztira, 18 neska-mutil) eta, Txinako euskaldun horrez gain, LHko 3. mailan dagoen Beatriz Maciasek ere saria lortu zuen. m

Hui Ming-ek Donostian jaso zuen saria



Barandiaran institutuko ikasleak eta Suediatik bisitan etorritako lagunak

Suediatik Leioara

Ikasle suediar talde batek astebete egin du Leioan, kultura truke baten barruan

Astebete Leioan egon ostean, Suedian daude berriro ere martxoaren 15ean bisitan etorri ziren 13 ikasle suediarrek. Orain Leioakoen txanda dator: apirilaren 5ean abiatuko dira herriko 20 ikasle (17 neska eta 3 mutil) Suediara, eta hamalau egun egingo dituzte han. Ikasle guztiak, bai bertokoak bai Suediatik etorri direnak, 17 urtekoak dira.

Barandiaran institutuak bultzatutako truke honen helburuen artean, atzerri hizkuntzetako gaitasuna hobetzea dago. Eus-

kaldunon kasuan, ingelesaren erabilera indartu gura izan da; suediarrenean, gazteletera, horixe ikasten dihardute eta. Horrez gain, batzuek eta besteek suediarazko eta euskarazko oinarri batzuk eurenganatzeara gura da. Bestalde, ikasle suediarrek Leioan emandako denboran Euskal Herriko hainbat alderdi ezagutzeko aukera eduki dute. Leioako ikasleek etxeetan bizi izan dira, eta hainbat leku esanguratsuri egin diote bisita. Aurtengo hau Suedia eta Leioako ikasleek arteko bosgarren elkartrukea da dagoeneko. m

Ainara Trigueros > Zinemagilea

"Sentimenduez berba egitea gustatzen zait niri"



Argazkian, Ainara Trigueros

Hogetailau urte dauzka eta ikasgai bat geratzen zaio Arte Ederrak amaitzeko, baina dagoeneko Ainara Trigueros leioztarrak pausu bat baino gehiago eman du zinemaren munduan. EITBko serie batean hasi zen *atrezzo* lanak egiten, eta, dioenez, *"Ikusentzunezkoak ikasten nabilen arren, orduan konturatu nintzen zelakoa den lan hau"*.

Esperientzia hark zeozer gehiago egingo bultzatu zuen. Beste egile batzuek egingandako lanez gain, film laburrak eta bideoak egin ditu bere kontura. *"Filmak zuzentzea gustatzen zait"*, dio Ainarak.

Hainbat gidoi dauka idatzita, beti ere norbanakoaren barne muinari begira: *"Nik ez ditut ekintza askoko istorioak kontatzen; sentimenduak adierazi gura ditut, norberari dagozkion kontuak"*.

Orain proiektu berezi batean murgilduta dago: *"Bideodantza izango da, nolabait esateko. Euskal Herriaren historiaren ikuspegi desberdina emango dut, Aukeran dantza taldearen laguntzaz"*. Apurka-apurka, eta tartean sariren bat ere jasoz, zuzendari izateko ametsaren bidean aurrera jarraitzen du Ainara Trigueros gazteak. m

ERROTULOAK



Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK
egiten ditugu

udondo
taberna
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA



BEREHALA -
KO
MEZULARITZA ETA GARRAIO-

☎ 94 430 73 19
Faxa: 94 430 90 18

Elizondo, 1 (Villamonte) • 48991 GETXO

KURKUDI
LIBURU DENA

Euskarazko
irakurgai

Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA
T: 944 913 402



amesti 7^{SL}

[eraikuntzak]
[etxeetako berrikuntzak]
[gremioen koordinaketa]

Kasune 9 • Tel./Fax: 94 431 98 06
48990 ALGORTA

Txemi de la Cruz >

Berbots Erandion
Euskaraz elkarteko kidea



—Noiz eta zein asmorekin sortu zen Berbots? Berbots 1993ko ekainaren 19an sortu zen, herrian euskararen presentzia areagotzeko eta euskal komunitatea sendotzeko.

—Zelan dabil Berbots indarrez? Beste euskara elkarte batzuen moduan, kanpotik ikusten dutenek agian sendo iritziko diote, baina eguneroko lanean betikook segitzen dugu. Garai hobekak bizi izan ditugu eta baita txarragoak ere.

—Zein da Kanpamartxoren helburua? Aintzina galdutako ohitura zahar bat berreskuratzea zen gure asmo nagusia eta horrekin batera euskararen inguruan batzea eta euskara gauza atseginekin lotzea.

—Aurten Arriagan izango da, zelan antolatzen duzue? Auzoko taldeekin elkarlanean egiten dugu, behin auzo batean eta hurrengoan beste batean. Astrabudua eta Alzaga auzo hiritarretan izan ezik beste guztietara ailegatu gara.

—Aurtengo edizioan berrikuntzarik bai? Beno, iaz sona handiko taldea ekarri genuen erromeriarako eta jai herrikoiaeren kutsua galtzen ari ote ginen ikusita, aurten erromeria-erromeria egin nahi dugu, Iparraldeko talde batekin. Horrez gain EGUNKARIArekiko elkartasuna erakutsi eta bizi duten egoera latza guztion buruan eta bihotzean izango dugu. m



lazko Kanpamartxoko irudi bat

Kanpamartxo 2003

Erandioko euskararen jaiak apirilaren 6an ospatuko da **Arriaga** auzoan

Aurten berriro ere, apirilaren seian eta Berbots Erandion Euskaraz taldearen eskutik, geure hizkuntzarekin gozatzeko jaiak ospatuko da Erandion. Aurtengoarekin hamaika (literalki) urte dira herriko eskultzaletan guztiak batzea helburu zeukan eta badaukan jai hau ospatzen dutela.

Euskarak, Erandion aurrera egingo badu, nor bere esparruan parte hartuz eta talde zein pertsona askoren laguntzaz izan behar duelako ustea dute Berbotseko kideek. Eta jai hau, Kanpamartxo, indar horiek guztiak biltzeko antolatzen da.

Aurten, auzorik auzo egiten ohi den jai hau Arriaga auzoan ospatuko da. Eguerdian jairi hasiera emoteko edo, hamabiak aldera Goialde, Trabudu, eta Uztargi taldeetako dantzariak giroa berotzen hasiko dira. Ondoren, umeek haietazko propio prestutako ekintzetan olgetan diharduten bitartean, koadrilek, berandutu ez badute nahi, herri bazkaria prestatzen hasi beharko dute.

Mañukorta, Sustrai Kolina, eta Onintza Enbeita bertsolariak ere izango dira gurgaz, arrastiari hasiera emateko. Eta inork artean indarririk badu, Iparraldetik etorriko den "Patxi eta Bat Bi Hiru" taldearekin dantzatzen eta dantzatzen ikasteko aukera edukiko du.

Zoaz Kanpamartxora! m

Egitaraua

- 12:00. **Euskal Dantzak.**
- 13:30. **Bertsolariak.** Mañukorta, Sustrai Kolina, Onintza Enbeita. Gai Jartzaile: Gotzon Barandiaran.
- 14:00. **Bazkaria.**
- 16:30. **Betiko kantuak.** Roberto Etxebarria eta Arizabalaga.
- 17:00. **Umeentzako antzerkia.**
- 18:00. **Erromeria.** Patxi eta bat...

Egunean zehar, urterto legez, umeentzako jolasak, puzgarriak, trikitalariak, taloa, giro ederra...



Hainbat ikastaro antolatu dituzte Arriagan. Argazkian, yoga taldea.

Arriaga auzoa

Marjinazioa saihesteko borrokatu duen auzoa

Arriaga 1950eko hamarkada arte nekazari auzoa zen. Garai horretan "opila egitera" etorri zen langile uholkadak auzoaren izaera zeharo aldatu zuen. Auzoaren bizitza Artetxe taberna eta herri eskolen aldean biltzen da. Izan ere, 600 inguru auzokoren topagune bihurtu da.

Azken hogeita hamar urteotan hainbat arazo ikusi izan duen arren, Arriagak bizibizirik dirau gaur egun. Marjinazioa saihesteko aurrera eramandako ekimenak izan dira auzokoen lan abiapuntuak: Arriaga inguruan eraikitako autobide sareak auzo bitan zatitu ondoren zubiaren eta oinentzako pasabidearen galdea eginez garatu zuten borroka. Auzotik igaroko den garraio

publikoa eskatzeko hainbat eta hainbat ekimen eta aldarrikapen ere egin dute... Azken batean auzoan bertan bizitzen jarraitzeko apustua egin dute arrioztarrek.

Izan ere, ekimen guztiak ez dira izan zeozeren aurka borrokatzeko soilik. Kultura, auzolana eta giza harremanak sendotzea ere izan dira Arrioztarrak Auzo Elkartearen helburua. Hainbat urtetan euskara ikasteko taldeak, auzokoentzako txangak eta jaiak antolatu dira, eta azken hilabeteetan tai-txi, aerobic eta yoga ikastaroak ere martxan ezarri dituzte.

Aurtengo Kanpamartxoan Arriaga dugu topagune, auzo aproposa euskararen jai baten elkartzeko. m

BIZIRIK ERRESPETA GAITZAZU! TXIRRINDULARIEN ALDARRIA

Erandioko Txirrindulari Elkartek antolatuta, Erandio-Erandio XI. Ibilaldi Zikloturista izango da apirilaren 6an. Udaletxeko plazan hasi eta bertan amaituko dute 500 bat partaidek, Erandio, Larrabetzu, Morga, Larrauri, Sollube, Bermeo, Plentzia, Unbe, Erandio ibilbidea eginez. Gustoko kirola eginez egun atsegina igarotzea da helburu nagusia, baina partaideen segurtasunari arreta berezia jarrita.

Izan ere, kotxeak bizikletari lekua jan dion honetan, itzelez arriskutsu bilakatu da errepidean bizikletaz ibiltzea. Hori dela eta, txirrindulari elkarteok aspalditik ari dira txirrindularien eskubideak eta segurtasuna aldarrikatzen eta erakundeetan eskaera zehatzak aurkezten.

Horrez gain, elkarteak dei berezia egiten die komunikabideei bizikletaren erabilgarritasuna eta abantailak lau haizeetara zabaltzeko: kirolean, aisian zein garraioan baliabide erabilgarria dugu, energia aurreztailea, ez du ingurumena kutsatzen, osasungarri da...



cianoplan s.a.
global printers

Villa de Plentzia 6. zbk
Antiguo Golf - Getxo
tfnoak: 944 64 90 87
944 64 86 91
http://www.cianoplan.es

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

...eta gainera, fitxategien imprimaketa!



orain
sopelan

aldizkaria
etxean
jaso nahi
baduzu

94 491 13 37

dirulaguntzak

Boluntzarreta
BBK 2095 0121 10 9102483676
sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria
171 posta kutxa / Amezti 6, 4. solairua 5.
bulegoa / 48990 Getxo / ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

Denetarik egiteko aukera

Larrabasterrako etxe ezagun batean hainbat ikastaro opezten du **gazte talde batek**



Biztanle berriek lan handia hartu dute etxea zaharberritzen

Larrabasterran ospe handikoa da Tomasen etxea deritzona. Auzoan egon den tabernarik kuttunenetakoa bertan zegoen; inoiz jaietako erromeriak ere ondoko zelaitxoan egin izan dira. Duela gutxi, Argentinatik etorritako gazte talde batek lozorrotik atera du etxea; bertan bizitzera sartu eta, horregaz batera, hainbat aktibitate egiten hasi dira bertan.

Hain zuzen, bost argentinarrak eta euskaldun bat bizi dira etxean. Guk euretako

bigaz egin dugu berba: Noël Rubiales eta Vito Venturino. Dioskuenez, *“geure gauzak egiteko eta aldi berean bertan bizitzeko balioko zigun etxe baten bila genbiltzan. Hau ikustean, ez genuen zalantzarik eduki”*.

«Etxea ikusi eta bertan esan genuen: hauxe da guk behar duguna»

Lan ederra hartu zuten etxea egokitze-ko: *“bost hilabetez jo eta ke ibili ginen”*. Bitartean, mota guztietako ekintzak zermatzaten aurrera (musika, dantza, argazkilaritza...), baina Noël-ek eskaini zuen lehen ikastaroa: *“Sabel-dantza eskolak iragarri nituen, itxaropen handirik gabe. Erantzuna, hala uste gabe, oso ona izan zen”*. Apurka, beste ikastaro batzuk ere ematen hasi ziren, eta gaur egun horri esker ateratzen dute bizimodua. Vitoren berbetan, ehun lagun-edo ibiltzen dira, sartu eta irten, berpiztutako etxean. m

Zer ikas daiteke?

Ikastaroetako batzuk etxean bizi direnek eurek ematen dituzte; beste batzuk, berriz, etxekoa ez den eta laguntzeko prest agertu den jendeak. Menuan, momentuz, **sabel-dantza, Afrikako dantzak, tai-bxi, konputagailu bidezko musikagintza, margolaritza eta aerobika** daude, eta laster tangoa dantzatzeko ere ikasi izango da.

Ugeraga Sopelako harrobia

Kirola eta **lagunak** egiteko modua



Taldeko futbol jokalariek entrenatzen hasi baino lehen harrapatu genituen

Ceferino Amarika, 51 urteko sopoloztarak eta Udaleko delineaiztaileak badaramatza 17 urte Ugeraga Kirol Elkartearen presidente. 1980an sortu zuen kluba eta *“hasieran Plentzian eta Negurin jokatzeko genituen etxeko partiduak, Urkoko futbol-zelaia 1983an egin zen arte”*.

Futbol arloaz gain, Ugeragak baditu beste atal bi; txirindularitzakoan 60 lagun dabilta eta saskibaloikoan, berriz, 48. Halaber, Ugeragak dauzkan bederatzita futbol taldeetan 225 jokalarik daude, gehienak Sopelakoak. *“85-86 eta 01-02 denboraldietan erregional preferentera igo ginen eta horiek izan dira orain arte lortutako arrakastarik handienak”*, diosku Ce-

ferinok, *“Aurten, hirugarren mailara igotzeko ahalegina egingen gabiltza”*; eta lor dezakete, Iñaki Lopak entrenatzen duen taldea lehen postuetan dabilelako jo ta ke.

Ugeragatik Athleticera?

Sopelako talde honen helburua herriko neska-mutiek kirola eta lagunak egiteko ingurunea izatea da, *“eta gainera norbaitek arrakasta badu, 2. B mailan gera ez dadila, doala lehenengoraino, Athleticekin jokatzera”*. Ugeragak Urkoko futbol-zelaian entrenatzen du martitzenetan, eguenean eta barikuetan, iluntzeko 20-etatik gaueko 22etara. m

Harremanetarako: 656 79 20 60

EUSKAL DANTZA IKASTAROA ANTOLATZEKO ARAZOAK

Martxoaren 15ean hasi behar zen, baina, ordutegi eta leku arazo batzuk direla medio, zertxobait atzeratu behar izan da Kultur Etxeak antolatutako euskal dantza ikastaroa. Edizio hau ixteko momentuan Kultur Etxeko langile batek UKri adierazi zionez, arazoak konpontzeaz zeuden eta beraz litekeena da aldizkari hau zuenganatu orduko ikastaroa abian egotea. Segurantzean, udal gimnasioan izango dira eskolak, eta Algortako Itxartu dantza taldeko kide bik emango dituzte. Ikastaroa dohainik da, eta 5 urte baino gehiago daukan edonor joan daiteke bertara. Ikastaroa hasteko iragarria zegoen egunerako, 26 lagun zeuden izena emanda; horietatik bost, helduak, eta gainerakoak, umeak. Parte hartu gura izanez gero, aste barruan egin behar duzu Kultur Etxeko bulegoetan. Eskolak, berriz, zapatuetan dira, eguerdiko 12etatik 1ak arte.

LAIKAK
Taberna

Bentatxu, 2
48600 Sopela

Tlf. 94.6760328



erakusketak
antzerkia
dj.ak

ALGORTA



EGINKOR
INMOBILIARIA

Basagoiti, 55 behea
T.: 94 460 09 62 / 66
Faxe: 94 460 0966
48990 ALGORTA
eginkor@euskalnet.net
www.inmoeginkor.com

BEROGAILU ETA ITUR-



T: 430 53

Sarrikobaso 15

ETXEKO?ELEKTROTRESNEN?KONPON -

Lacofris.s.l. SERVICIO

¥ MARKA GUZTIAK
¥ 24 ORDUTAN ERANTZUNA
¥ 3 HILABETEKO GARANTIA
¥ 25 URTEZ ZURE ZERBITZUA

& 94 430 52 00 Kasune, 18 - ALGORTA

GOIZEAN

Gozoki eta prentsa, gutxi denik
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1
T: 430 22 13
GETXO

Tellexe 13
T: 460 02 88
ALGORTA

Botilaz gainezka

Irtenbiderik ez da topatu, momentuz

Astebururo botila hutsez beteta agertzen dira Berangoko hainbat bazter txoko, Maisu eta Moreaga parkeak batez ere, Udaltzaingotik adierazi digutenez. Gauza jakina herrian dauden hainbat diskotekak makina bat gazte erakartzen dutela bariku eta zapatu gauetan. Ondorioa domekataran igar dezake paseatzera ateratzen den edonor: alkoholdun edarien ontziak, nonahi botata, bai aipatutako parke bietan bai Eroskiren alboan, hortxe joaten da-eta gazte mor-doa, asko 18 urtetik beherakoak, edari erostera. Batez ere diskotekan alkoholik saltzen ez duten egun eta orduetan gertatzen da hori.

Momentuz, udaletxeak ez du honen gainezka erabakirik hartu, baina udal iturrietatik adierazi digutenez, herriko agintariak ondo gogoan daukate arazoa existitzen dela eta konponbideren bat topatu beharko dela epe laburrean. Orain arte hartu den neurri bakarra as-telehen goizetan garbiketa zerbitzua aragotzea izan da. ^m



Javier García berangoztarra taldeko presidentea da urtarriletik

Gurpil bi, pasio bat

Javier García Berangoko Txirrindulari Elkarteko presidentea aurtongo gorabeherak azaldu dizkigu

Berangoko Txirrindulari Elkartek presidente berria dauka urtarrilaz geroztik. Javier García da, eta taldea ondo ezagutzen du, orain arte entrenatzailea izan da eta. Tira, orain arte eta oraindik aurrera ere bai: presidente kargua hartzeaz batera *"ia-ia elkarteko lan guztiak"* bereganatu ditu, barreka "aitortu" duenez.

Elkartek zortzi eta hamahiru urte bitarteko umeak biltzen ditu. Momentu honetan, hiru neska eta hamar mutiko daude bertan, dagoeneko entrenatzen hasiak: *"Duela hiru asteburu hasi ginen. Lehenbizikoan mendira joan ginen, elkar ondo ezagutzeko batez ere. Bigarrenean, igerilekura joan ginen eta, hirugarrenean, Uribe Kosta erdia zeharkatu genuen mendiko bizikletaz"*.

Javierren ustez, umeak dibertitzea helburu nagusia izan behar da, momentuz behintzat. *"Edukiko dute sufritzeko astirik, kadetetara igarotzen direnean, igarotzeko-*

tan behintzat". Berango Txirrindulari Elkartek ez dauka goragoko mailarik, lan handiegia izango litzatekeelako. *"Nahikoa daukagu oraingoarekin"*, dio Javierrek, egiten duenaz harro.

Uztailean, lasterketa erraldoia

Apirilaren erdian-edo taldea aurkeztuko dute. Sosak lortzea kostatu egin zaiela gogora ekarri gura du presidentek: *"Aurtont jantzi berriak erabiltzen hasiko gara, eta oraindik orain lortu dugu horiek ordaintzeko diru-baliabideak"*. Kontuak kontu, laster jantzi berriok ezagutzera emango dira. Gainera, urteko egutegia iragarriko da, *"bai zein lasterketatan parte hartuko dugun bai guk geuk zeintzuk antolatuko ditugun ere"*. Asmo nagusien artean, uztailean 6an eskolarteko lasterketa erraldoia egitea daukate: *"400 ume elkar daitezke, pentsa, non eta Berangon. Jendeak ez du herria ezagutuko"*. ^m

Kultura gehiago

Herriko **biztanle** kopuruaren gorakadak eskaintza **zabaltzea** eragin du

Azken urteotan biztanle kopuruak gora egin du Berangon. 1995ean 4.450 ziren eta, aurtun, 5.500. Beste herri batzuetatik etorri direnez gain, jaiotza-tasa ere gorantz doa 90-eko hamarkadakoagaz alderatuta. 2002an, esaterako, 1997an baino 20 ume gehiago jaio ziren herrian.

Hazkunde horregaz batera, kultur ekintzen eskaria handitu egin da. Eta eskaintzak erantzun egin behar izan dio, jakina. Helduentzako ikastaro guztietan, adibide bat ematearren, plaza guztiak bete dira eta, kasu askotan, jende asko parte hartu barik geratu behar izan da. Batz best 20 lagun joaten dira ikastaro bakoitzera, udaletxeak emandako informazioak adierazten duenez.

Santa Anako ekintzak, arrakastatsu

Beldurra zegoen Santa Anako kultur etxe berriak eduki zezakeen harreraz, erdigunetik urrun dagoelako, baina erantzuna oso ona



Santa Anako kultur etxea

izan da, Miren Dobaran alkatearen esanetan. Gaztelekuak, esaterako, Berangoetako gu- nean lortu ez duen arrakasta lortu du han (edukitako harrera ikusita, zerbitzu hori leku handiago batetara eroateko aukera ari dira aztertzen) eta KZguneak urte bitarako aurreikusitako helburuak ia bete egin ditu abiatu zenetik igarotako zortzi hilabeteetan. ^m

LIBURUAK HERRIKO UMEENTZAT

Martxoaren 20tik, Udaletxeak Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak argitaratutako liburu bat bialtzen ari zaie herrian 3 eta 13 urte bitartean dauzkaten ume guztiei. Liburu horretan Mankomunitateak azken hiru urteetan antolatutako ipuin sariketetan irabazle suertatu diren ipuin guztiak daude. Guztira, 36 narrazio, umeek eurek egindako irudiz lagunduta. Miren Dobaran alkateak esan duenez, Udaletxeak ahalegina egin du bertoko umeek idatzitako ipuinak zabaltzeko eta,aldi berean, irakurzaletasuna sustatzeko, euskaraz batez ere.



aldai

TAPIZTEGIA

DEKORAZIOA

ERAKUSKETA

ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA

20º ANIVERSARIO URTEURRENA

AENOR
R
Empresa Registrada
ER-1891/2001

AENOR
GA
Gestión Ambiental
CGM-02/006

KLIMATIZAZIO
INGENIARITZA
INSTALAZIOA
MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114
48640 Berango, Bizkaia
tel. 94 668 15 51
Taxa. 94 66829 92
e-mail: vasa@euskalnet.net

etorri eta ikusi!!

ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

TXIBERRI edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15

BASARTEA

URDULIZ

Teléfono: 946 761 128

krimea

Negubide 13
Tel. 94 463 61 82

AREETA

[herriak]

PLENTZIA Plentzia Telebista, erronkari eusten



Maitane Ruiz, Plentzia Telebistako egoitzan

1987an sortu zen Plentzia Telebista, behin-behineko programazioagaz. Zeozer zegoenean, bota egiten zen eta kitto. Apurka, egonkortuz joan zen, baina duela urte bertan behera geratu zen, ordura arte zebiltzanek bat-batean utzita. Orain, urtebete daroa berriz ere uhinetan (UHFko 53. kanalean hain zuzen), lan talde berri baten ahaleginari esker.

Horietako batez berba egin du gu PTBren gaurko egoeraz. Maitane Ruiz dauka izena, eta ogibidez irakaslea da. "Hemen ez dago kazetari profesionalik, ikasle bat baino ez". Injenieri, psikopedagogo eta abarrez osatutako talde txoak, zelan edo halan, asteen behineko emanaldiei eustea lortzen

GORLIZ Guraso izaten ikasi

Martxoaren 6az geroztik, gurasoentzako ikastaroak antolatzen ari da Gorlizko Kultur Etxea. Jardunaldiak eguenero egingo dira maiatzaren 15era arte, goizeko 10'30etatik 11'45era, eta gurasoek beren seme-alaben heziketaz zer ikusia daukaten gaietan ager ditzaketen kezka, bedur

du. Domekatan, eguerdiko 2'30etan (eguztenero arratsaldeko 8'30etan errepikatzen dute), dauzkaten hiru saioetako bat ematen dute. "Bertokoak Berri albistegi itxuraz egiten dugu, erreportajeakaz-eta", dio Maitanek, "Nahaspila kirol ikuskizunei es-

«Talde berriak asteen behineko emanaldiei eusten die»

kaintzen diegu, eta, azkenik, Atzokoak Gaur-en, aspaldiko erreportajeak enakusten ditugu". Hori da, momentuz eta garai hobe zain, PTBren menua, beti ere Plentzia, euren herria, hizpide daukatela. m

eta zalantzen gaineko argibide batzuk ematea dauka helburu. Apirilaren lehen hamabostaldia dagokionez, 3an eta 10ean izango dira ikastaroak, Kultur Etxeko Erakusketako Areatoan. Ikastaroen arlo teknikoak Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak hartu du bere gain. m

Mart. 29 - Apir. 11

[agenda]

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: aldizkaria@euskalnet.net • Tel.: 94 491 13 37 • Faxa: 94 491 58 31

ANTZERKIA

ERANDIO

► **www.comunicando.com.** Bekoa ikastetxean. Apirilak 5, zapatua. 19:30. *Arakean* taldearen eskutik

GETXO

► **El nacional.** Getxo Antzokian. Apirilak 4, barikua. 19:00. *Bonbolinak* konpainiaren eskutik.

BILBO

► **Morgan pirata gaiztoa lapurretan.** Kafe Antzokian. Martxoak 30, domeka. 17:30.
► **Yuri Sam.** Kafe Antzokian. Martxoak 30, domeka. 20:30. Antzerkiola imaginarioaren eskutik. Estreinaldia.

ERAKUSKETAK

BERANGO

► **Beatriz Solerren olioak.** Erakustaretoan. Martxoaren 31tik apirilaren 27ra.

ERANDIO

► **Umeen lan-esplotazioaren gaineko argazki erakusketa.** Josu Muruetan. Martxoaren 31tik apirilaren 14a arte. *Hegoari adi* taldearen eskutik.

GETXO

► **Kemenak.** Erromoko erakustaretoan. Apirilaren 1etik 16a arte. Saiatu Fundazioaren eskutik

LEIOA

► **Edurne Saizen margolanak.** Sakoneta Kultur Areatoan. Martxoaren 31tik apirilaren 11a arte.
► **Exposición solidaria proyecto ayuda a Mozambique.** Sakoneta Kultur Areatoan. Martxoaren 31tik apirilaren 11a arte.

PLENTZIA

► **Mamen Romeroren olioak.** Goñi Portalen. Apirilaren 1etik 15era.

MUSIKA

BARRIKA

► **Trago Largo.** Golfo Norte-n. Martxoak 29, zapatua. 23:00.
► **Victor de Diego Group.** Golfo Norte-n. Apirilak 5, zapatua. 23:00.
► **El Desván.** Golfo Norte-n. Apirilak 12, zapatua. 23:00.

GETXO



► BERTSOLARITZA

Il Abra saria, Areetan

"Euskal Herriko bertsolari gazteak", dio Il Abra saria iragartzen duen kartelak. Eta badaude batzuk, bai. Josu Esnaola Bizarra Lepoaneko kidea gaijartzaile arituko da Jon Martin, Miren Loizaga, Manex Agirre, Miren Ibarluzea, Iñigo Izagirre eta Ekaitz Larrazabal bertsolariek parte hartuko duten txapelketa honetan. Areetak hitzordua dauka etorkizuneko bertsolaritzagaz. Ez galdu.

Non: Andrés Isasi Musika Eskola • **Noiz:** Martxoak 29 • **Ordua:** 19:00

► **Aitor Olea Juaristiren organo kontzertua.** Algortako san Nikolas elizan. Apirilak 4, barikua. 20:30.

BILBO

► **Jabier Muguruza.** Kafe Antzokian. Apirilak 3, eguna. 22:00.

IRTEERAK

ERANDIO

► **Gaztelu mendira irteera.** Apirilak 6, domeka. Mendigoizaleak taldeak antolatuta.
► **Iramendira irteera.** Apirilak 13, domeka. Atxazpe taldeak antolatuta.

ZINEMA

GETXO

► **El tesoro de Manitu.** Getxo Antzokian. Martxoak 30, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00etan. Umeentzat.
► **Ciudad de Dios.** Getxo Antzokian, apirilaren 2an (eguztena) eta Areetako Gran Cineman, apirilaren 3an (eguna). Biak 20etan.

PLENTZIA

► **Nadie me quiere.** Goñi Portalen. Apirilak 3, eguztena. 19:00.
► **Charlie y Louse.** Goñi Portalen. Apirilak 5, barikua. 16:00. Umeentzat.
► **Quiero ser como Beckham.** Goñi Portalen. Apirilak 12, zapatua. 18:00. Gazteentzako zinema.

HITZALDIAK

PLENTZIA

► **Irak: situación actual.** Goñi Portalen. Apirilak 10, eguna. 19:30. Mikel Etxabururen eskutik.

BESTERIK

ERANDIO

► **XI Erandio-Erandio ibilaldi zikloturista.** Irteera, 9:00etan. Erandioako Txurrindulari Elkarteak antolatuta.

GETXO

► **Kontularien Kluba.** Algortako Kultur Etxeko areto nagusian. Apirilak 11, barikua. 19:00.
► **Ume eta gazte liburuen eguna.** Algortako Estazioko plazako karpan, 10:00etan, V. jendaurreko ipuin irakurketa, getxoxtar ikasleen eskutik. Euskaraz eta gaztelaniaz. 17:00-19:00 bitartean, leku berean, ipuin kontularien maratona, euskaraz eta gaztelaniaz. Bertan parte hartuko dute: *Fábula* (Logroño), *Alberto Sebastián* (Kantabria), *Hiruki* (Bizkaia) eta *A la luz de las velas* (Bizkaia)

GORLIZ

► **Dantzaldia.** Iberrebarrin. Apirilak 9, eguztena. 12:00. Korrika dela-eta Aratz taldeak eskainitako emanaldia.
► **Euskal ipuinak txotxongilo ikuskizuna.** Iberrebarrin. Apirilak 9, eguztena. 13:00.
► **Lehendakari Saria txirrindulari lasterketa.** Apirilak 10, zapatua. 16:00.

Zenbat Gara elkarte

BILBO
San Vicente 2 48001 BILBO
Tel: 94 424 46 25 Fax: 94 424 28 02

ONDARROA
Iparragirre 10 48700 ONDARROA
Tel: 94 683 41 41 Fax: 94 613 44 43
www.kafeantzokia.com



Algortako frontoia



Plentziako zubia



Portu Zaharra



Martiatu

Gerizaren esangura

Hiztegi entziklopediko baten arabera, geriza edo itzala “argiak bere bidean gorputz opako batekin topo egitean, gorputzak argi-izpiak eragozten duelako sortzen den espazio-zati iluna” da. Baina zelan esplikatu hori bere geriza harrapatzen alperrik ahalegintzen den ume txikiari, edo irudi hauen aurrean hamaika sentimendu adierazteko gai den poetari? Geriza gauza asko izan daiteke. Goza ezazue eguzkiak oparitu dizkigun hauetaz.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



San Nikolas plaza



San Nikolas plaza



Algorta



Portu Zaharra

Euskal futboleko heroi bihurtu zuten bere gelditu itzelek eta bere segurtasunak. 1962-63 denboralditik 1979-80ra Athleticen jokatu zuen, atezain on bat baino gehiago aulkian egotera edo maletak prestatzera behartuz. Historiako atezainik onenetakoak Athleticen jarraitzen du gaur egun, 60 urteak bete berri dituela, atezain entrenatzaile eta zuzendaritza lanetan. Zurigorritasunaren tenpluan, Ibaiganen, hartu gintuen, eta bere buruaz eta bere bihotzeko taldeaz egin genuen berba orain dela hamalau urtetik hona Sopelan bizi den euskal kirolaren mito honegaz.

José Angel Iribar Zarauztar luze hura

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

la hogeitau urte

Umetan Zarautz jaioterriko atezain izatera ailegatzea ametsa zen Iribarrentzat. Oso gazte zela, Baskoniak fitxatu zuen (arteaz 2. mailan), eta handik bere talderik kutunenera igaro zen berehala: izan ere, Iribar (familia osoa bezala) Athleticzale amorratua zen. Bilboko taldean emandako urteetan, Espainiako Errege Kopa bi irabazi zituen Iribarrek. Beste hiru final ere galdu zituen, tartean Betisen aurkako ospetsu hura, Athletic UEFAko txapeladunorde geratu zen 1976-77 denboraldi gogoangarrian. Espainiako selekzioagaz lortu zuen Iribarrek arrakastarik handiena, 1964ko Eurokopa irabazita.

—Batzuen ustez, historiako atezainik onenetakoa zara. Zer deritoxo?

—Nik ez dut uste ezer. Poza ematen du hori entzuteak, baina nik beti eduki dut lege bat: nire lanean egunetik egunera ahal dudana guztia egitea. Azkenean zuk orain galdetzea ere niretzat ohorea da.

—Edukiko zenuen eskaintzarik talde hobea batera joateko...

—Baskonian nengoenean, At. Madrilek, Valentziak, Bartzelonak... deitu zidaten, baina Athleticen eskaintza aukeratu nuen.

“Oraingo futbola nik jokatzeko nuen garaikoa baino askoz fisikoagoa da”

Nik orduan ez neukan ordezkaririk, baina garai hartan aitak esaten zuena ere kontuan hartu behar zen eta bera etorri zen hona Bilbora.

—Azken boladan Athleticen atezaina urtero-urtero aldatu da denboraldiaren erdian. Zer gertatzen da?

—Oraingo atezainek guk geneukana bai-


no erantzukizun handiagoa daukate. Gehiago eskatzen zaie, osoagoak izan behar dira, oinezkin jokatu... Horrek asko zailtzen du beren lana. Athleticek daukan arazoa talde guztietan dago. Atezainak ez dira finkoak, lehen bezala. Nik uste dut Athleticeko atezainak onak direla, e? Konfiantza eman behar zaie.

—Hala ere, esaten da (kalean, komunikabideetan...) Athleticen atezain izatea erantzukizun handiegia dela, hain zuzen zu egon zinenetik...

—Nik uste dut hori beti egon dela. Nik Carmelo eduki nuen aurretik, eta Carmelok Lezama, Lezamak Blasco... Beti egon dira halako ereduak euskal atezainen historian, ezta? Arkonada, Zubi...

—Asko aldatu da futbola zu jokalaria zinenetik?

—Bai. Orain askoz ere fisikoagoa da. Le-



Ibaigane eta Lezama artean banatzen da José Angel Iribarren beharra

hen alde fisikotik ere zeozer eduki behar zen noski, baina ez zen hainbeste entrenatzen. Talde bakoitzean lau edo bost jokalaria artista zeuden, eta fisiko onekoak bi-edo. Orain alderantziz da.

—Zein da futbolarik utzi dizun oroitzapenik ederrena?

—Athleticek fitxatu ninduenekoa. 18 urte nituen, eta hori ez nuen inondik espero. Eta gero, jakina, irabazitako gauzak.

Lehen kopa irabazi nuenean, esaterako, urte asko ziren txapalketarik irabazi gabe; gu hartan berriak ginen, eta jendeak esaten zigun “ikusiko duzue zeozer irabaztean zelan hartzen zaituzten Bilbon eta Bizkaian”, eta hala izan zen. Liga biak irabaztea ere hunkigarria izan zen (ni talde barruan nengoan atezainak entrenatzen). —Hura errepikatzen modurik badago? —Gero eta zailagoa da, hori badakigu,

baina futboleko gauza asko aldatzen ari dira. Urte batzuetatik hona dirua sartu da barra-barra, eta talde guztiak asko indartu dira. Baina hori nabarmen doa behera. Guk hor aukerak dauzkagu. Harrobia lantzen jarraitzen badugu abantaila bat edukiko dugu. Oso zaila da, baina nork esango zigun guri duela bost urte bigarren izango ginela ligan?

—Zer uste duzu etengabe plazaratzen den atzeritarrak bai/ez eztabaidaz?

—Gure indar guztia gure filosofian dago, eta hori hala da badakigulako bazkide eta zale gehienak horren alde daudela. Ezin dugu hori galdu, beste inork ez daukan zerbait da. Badakigu gero eta lan zailagoa dela, eta ondo egiteko gero eta gehiago hurbildu behar dugula Bizkaiko eta Eus-

“Sortzen ari den fanatikotasun giro horren inguruan klubek badaukate zer esanik”

kal Herriko taldeetara. Filosofia hori daukagu eta hortxe dago abian jartzen ari garen dena, interes handiko egitasmoa.

—Futboleko diru gehiegi mugitzen da, eta bestalde gero eta fanatikotasun handiagoa dago, bortizkeria zelaietan...

—Lehenengo eta behin, klubak serioagoak izan behar dira gestioari dagokionez. Ezin da gastatu ez daukazuna, eta askotan egiten da. Gehiegizko zaletasuna dela eta, sortu den giro horren inguruan klubetako jendeak (zuzendariak, entrenatzaileak, jokalaria...) zer esan handia dauka. Mezuak nolakoak diren begiratu behar da, eta komunikabideek ere badaukate eraginik. Bestalde, talde gehienak enpresak dira, baina hau kirola da, eta kirolean badaude bete beharreko arau batzuk.

—Giroa ikusita, berriro ikusi beharko ditugu Athletic eta Errealeko kapitainak ikurrina ateratzen zelaira?

—Hainbesterako izango da? Gure garaian ikurrina ikusteko Iparraldera joan behar zen. Pentsa, 1976an egin genuen hura. m



Erdian: Iñaki Intxausti, zentroko arduraduna. Behean: atzeko eraikinean daude Gorlizera eroandako animaliak.



Zanga bat Gorlizan askatu zutenean

Beste “sanatorioa”

Animalia Basatien Bizkaiko Birgaikuntza Zentroan egon gara, Gorlizan. Han osatzen dituzte herrialde osoan gaixorik edo zauriturik aurkitzen diren piztiak. Ospitala da, beraz, eta edozein ospitaletan bezala, bisitariak mugatuta gaude. Hala ere, hartu egin gintuzten eta, ondorioz, erreportaje hau moldatzeko aukera eduki genuen.

Gorlizko zentroak hiruzpalau urte daroaz animalia basatiak sendatzen. Iñaki Intxausti da bertako arduraduna, eta berak azaldu digu zentroaren filosofia: *“Hona etorten diren piztiak nahiko txarto egoten dira. Jakina, guk kopuru mugatu batentzako lekua baino ez daukagu, eta gu izatearen arrazoietako bat Euskadiko Naturaren Kontserbazioaren Legea denez gero, mehatxatutako espezieen euskal katalogoan daudenei ematen diegu lehenetsua”*.

Gorlizan sei edo zazpi lagun ibiltzen dira lanean, denak biologoak edo albaitariak. Batzuk karrera amaitu berri duten edo azken ikasturtean dauden bolondrezkoak dira, eta horregatik langile kopurua aldako-

rra da. Animaliak osatzeaz gain, pairatzen dituzten istripu edo eraso moten gaineko informazioa gordetzen dute, etorkizunean erabili ahal izateko. Dena dela, zentroaren zeregin nagusia, Intxaustiren berbetan, *“naturari kendutakoa atzera ematea”* da.

“Gure lana naturari kendu diotena atzera ematea da”

Osatutako animaliak askatzeaz, jeneralean, Bizkaiko Foru Aldundiko Base Gorria zerbizua arduratzen da, baina batzuetan, hurrengo orrialdean azalduko dugun bezala, eurek egiten dute. Ahal denean, piztiok aurkitutako leku berean askatzen ahalegintzen dira.

Gorlizan ez dute beti helburua lortzen. *“Animalia basatien esparruan”*, dio Intxaustik, *“%50etik gorako arrakasta portzentajea edukitea utopia hutsa da. Gu ari gara kopuru horietara hurbiltzen, eta inoiz ailegatu egin gara, baina ez da inondik inora erra-*

za”. Azken boladan, gainera, zorigaitzoko Prestige-k isuritako fuelak aurreikuspen guztiak hautsi dizkie. Galipotaren eragina jasandako 1836 animalia jaso dituzte, baina horietatik 300ren bat soilik zeuden bizirik. *“Eta 300 horietatik, asko eta asko ailegatu*

bezain laster hil zitzaizkigun”, esan digu Intxaustik atsekabez. Behintzat, ez dute denbora galdu. Galipotak hildako animaliei mota guztietako azterketak egin dizkiete, fuelaren eragina hobeto ezagutzeko.

Gorlizera ailegatzen diren animalien %80 hegaztiak dira. Ugaztun asko ere hartzen dituzte, eta narrastiren bat, *“dortokak batez ere”*. Intxaustik dioskunez, inoiz animalia exotikoak heltzen dira: *“Ez dakit batzuk aspertzen diren edo zer, baina hona denda erositako piztiak ekarri izan dituzte. Pitoiak eta halakoak”*. m

Zer egin animaliekin?

Gaixo edo zaurituta dagoen piztia bat topatuz gero zelan jokatu? Oso erraz: deitu Base Gorria (94 436 52 97) eta haiak berehala hartuko dute piztia. Zerbaki gogoan ez badaukazu, Ertzantzi edo Udaltzaingoa galdetu. Eurek azalduko dizute zer egin. Ahal dela, ez ezazu zuk zeuk eroan Gorlizera, jende gehiegi inguruan ibiltzea kaltegarria delako animalientzat; estresa eragiten die, eta horrek hil egin ditzake.

Behin-behineko askatasuna

Gorlizko zentrorra joan ginen egunean galipotak jotako zanga bi askatu zituzten handik hurbil dagoen hondartzan. Guk ere laguntzeko eta askatze-prozesua zuzenean ikusteko aukera eduki genuen.

Lehenengo eta behin, hegaztiak kutxetatik atera zituzten. Beren kabuz sartu ziren uretara, bata berehala, bestea minutu batzuetako zalantzaren ostean. Ordu erdiz-edo, urrunduz joan ziren, zentroko langileen begirada zorrotzaren pean. Piztia bat bere ohiko ingururera itzultzea beti arrakastatsua ez dela jakinda, prismatikoak eta, badaezpada ere, urpekari jantziak eroan zituzten. Azkenean, zorritzarrez, zangen bila joan behar izan zuten; galipotaren eraginez, txorion lumak ez ziren, artean, behar bezain iragazgaitzak, eta piztiak, apurka, urperatzen hasiak ziren.

Iñaki Intxaustiren berbetan, *“errazagoa izango zatekeen animaliak askatu eta gu beste barik handik joatea, baina ez dugu horrelakorik egiten. Eta ez dut kritikatu gura, baina askotan halan egiten da”*. Intxaustik dioenez, ez da animalia bat askatu behar bere ingurunean bizirauteko aukerarik edukiko duela ziur egon ezean. Bestela, geure buruei iruzur egingo genieke.

“Errazagoa litzateke animaliak askatu eta gu beste barik joatea, baina guk ez dugu holan egiten”



Badator Korrika

Apirilaren 8 eta 9an igaroko da euskararen aldeko lasterketa gure eskualdetik



Azken Korrikak Uribe Kosta zeharkatu zitueneoak dira argazki hauek



Ibilbidea

Korrikaren edizio hau, jeneralean ez bezala, bi bider igaroko da Uribe Kostatik. Lehenengo Erandio eta Leioa zeharkatuko ditu eta, ordu batzuk geroago, gainerako herri guztiak, Lemoizen hasi eta Getxora arte. Aurreikusitako ordutegia:

- **Apirilak 8, martitzena**
23:45: Erandio. 0:17: Leioa.
- **Apirilak 9, eguaztena**
7:20: Lemoiz. 8:08: Armintza. 8:15: Gorliz. 8:34: Plentzia. 8:44: Barrika. 8:54: Plentzia. 9:07: Urduliz. 9:33: Sopela. 10:12: Berango. 10:30: Algorta. 11:14: Erromo-Areeta.

Testua: **Unai Brea**

Korrikaren 13. edizioa Ibaizabaetik etorri eta joango zaigu. Traineruz ailegatuko da lekukoa Erandiora apirilaren 8ko gauetan, eta Bizkaiko Zubitik hartuko du Ezkerralderako bidea biharamuneko goizean. Ordurako, baina, kilometro askotxo edukiko ditu eginak lehen aldiz 1980an abiatu zen euskararen aldeko ekitaldi erraldoiaren edizio berriak.

Korrika apirilaren 4an abiatuko da Mauletik, eta hil bereko 13an amaituko da Iruñean, 2.150 kilometroko ibilbidearen ostean. Edizio honetako leloa “AEK-rekin herri bat geroa lantzen” da. Hala ere, eta geroa aipatu arren, iraganari keinu bat egin gura izan diote ekitaldiaren antolatzaileek, “*Euskal Herriak bere kultura eta hizkuntza berreskuratzeko lana ez dela gauzkoa*” gogora ekartzeko.

Hamairugarrenan, *Ez dok amairu* 60 eta 70eko hamarkadetan euskararen alde egindako lan izugarria oroitaraziko du Korrikak. Hasteko, garai hartan protagonista izan zirenak omendu zituzten otsailaren 16an Donostiako Kursaalaren egindako ekitaldian. Aurtongo abestia ere ildo beretik doa, beti ere *Ez dok amairu* mugimendua, euskal pizkunde haren adierazle nagusietako bat, ardatz hartuta.

Dagoeneko tradizio bihurtu da Korrikagaz batera hamaika kultur ekitaldi egitea, Korrika Kulturala deritzona, alegia. Aurtengoa ez da salbuespena izan, ikuski-

Maka Jiménez-Arellano > Korrikaren Uribe Kostako arduraduna
“Hemen zaila da kilometro bat inork erosi barik lotzea”



Maka Jiménez-Arellano sopoloztarrarentzat hau da Uribe Kostan Korrikaren ardura hartzen duen bigarren urtea. Dioskunez, aurtun gatxa izango da aurreko edizioeko partehartze maila errepikatzea, askoz ordutegi desegokiagoan igaroko da-eta Korrika gure eskualdetik.

— **Zelako harrera edukiten du eskualdean Korrikak?**

— Ona orohar. Aurrekoan, primeran egokitu zitzaigun, asteburua izan zelako. Oraingoan astearen erdian da, eta goizegi.

Algortan eta beste herri batzuetan, adibidez, Korrika Txikia Korrika nagusian sartzea pentsatzen ari gara, bete ahal izateko.

— **Zer arazo ari zarete topatzen antolatzeke orduan?**

— Momentu honetan kezka daukagu Lemoizen. 10 kilometro dira, eta goizeko 7etan sartuko da. Ez daukagu lotuta nor eza erango duen lekukoa. Dena dela, hemen zaila da kilometro bat erosi barik geratzea.

— **Zer mezu igorri gura zenuke?**

— Euskararen egoera oso latza dela eta parte hartu behar dugula honetan, hizkuntzaren aldeko gauza guztietan egin behar dugun bezala.

“Aurtengo leloa hau da: AEK-rekin herri bat geroa lantzen”

zunez betetako martxo eskaini digute-eta AEK-koek. Zoritxarrez, zuek aldizkari hau jaso orduko ekitaldi guztiak eginda egongo dira, baina beharbada garaiz harrapa dezakezue martxoaren 28an Plentzian egingo den Karidadeko Benta musika ekitaldi interesgarria, gaueko 9etatik aurrera.

“Euskara normalizatua behar dugu” Esan bezala, “AEK-rekin herri bat geroa lantzen” da 13. Korrikaren mezua. Euskalduntze Koordinakundeak adierazi duenez, “*euskarak lege babes iraunkorra behar du lurralde osoan. Euskara normalizatua izatea beharrezkoa dugu*”. Horretarako, gauza bi jotzen dituzte derrigorrezkotzat: beste hizkuntzen aldean euskararen balioa azpimarratzea, eta ofizialtasuna hizkuntzaren eremu osoan. Hala bedi! m



KAMILTXO
lehen hartze euskalduna!

Kaixo laguntxo!



27 €
bidalketa gastuak:
4,25 €

DEITU ORAIN

902 45 12 12

EGUN GUTXIREN BURUAN, ZURE ETXEAN

deitu!

TRUK

902 45 12 12

IRUÑEA • EUSKAL HERRIA



Argazkian, Ander Berreteaga bere untzian

Arrantzaleen beldurra

Uribe Kostan geratzen diren arrantzale profesional apurretako bat da Ander Berreteaga. Plentziako portuan dauka ontzia eta hantxe egon ginen beragaz berbetan. Martxoaren 17an Eusko Jaurlaritzak arrantza egiteko debekua kendu baino lehenago egin genuen elkarrizketan, bere kezak azaldu zizkigun Berreteagak.

—Otsailaren 17an galipota batzen hasi zineten...

—Izena eman genuen galipota batzeko eta otsailaren 17an hasi ginen. Bolondres kontua da, norberak ematen du izena, baina Eusko Jaurlaritzakoek ordaindu egiten dute, e? Portuan, irten barik geratu direnei baino zertxobait gehiago ordaintzen digute, eta gainera batutako kilo bakoitzeko hamar pezeta. Ondo ordaintzen dute, egia esan.

—Zenbat egunez irten zarete?

—Gu geu 15 egunez, eta gehien 2500 kilo batu ditugu egun batean, baina jeneralean 600-800 kilo bitartean hartu izan ditugu.

Abratik Billano lurmuturrera ibili gara, hortik ekialderago Armintzakoek egin dute. Eta orban handi bat egonez gero, denok harantza. Untzi handiek eta helikop-

“Ez dut uste arrantza egiteko debekua berme barik kenduko dutenik”

teroek ikusten dute galipota dagoen ala ez, eta horren arabera irteteko agintzen dute.

—Hemen, Plentzian, zenbat arrantzale profesional daude?

—Zazpiren bat. Itsasontzi bi joaten gara galipota batzen, eta besteak geldirik daude.

Kalte-ordain bat daukate geldi egotearen.

—Beharbada zure ardura ez dela erantzungo didazu, baina, ondo ordaintzen diete?

—Bada nire ardura, Armintzako kofradia-ko lehendakariordea naizelako (kofradian Algorta, Plentzia eta Armintzako arrantzaleak gaude, 20 inguru). Ordainketetarako dirua kofradietara bialtzen dute, beraz... Eta bai, ondo ordainduta dago.

Azken berriak

Iazko abenduaren 5ean “Prestige” petroliontziak isuritako fuela Bizkaiko kostaldera ailegatu zen eta Uribe Kostako itasaldea zikindu zuen nabarmen. Lau hilabete pasa diren honetan egoera lasaia goa dirudi, baina oraindik arazoak hor darrai, gure begi-bistan egon ez arren.

Otsaileko hasieran fuel tona pila bat jaso zuten itsasontziek eta gogor ekin behar izan zioten egun haietan; gero, bildutako galipotaren kopurua gutxitu egin zen eguraldia hobetu zelako. Martxoaren 17ra arte (berdelaren kanpaina hasi zen egunera arte), batezbesteko 100 itsasontzi inguru aritu ziren Bizkaiko itsasaldean fuel-orbanak jasotzen; egun, 12 itsasontzi aritzen dira behar horretan.

Krisialdia hasi zenetik arrantzaleek ia 20.000 tona galipot kendu dituzte itsasotik, eta garbiketa zerbitzukoek, berriz, beste 1.900 hondartza, kala eta harkaitzetatik. Datuok “Prestige” petroliontziatik isuritako fuelaren jarraipenerako sortu den Euskadiko sailarteko eta erakundearteko batzordeak eman dizkigu.

Gorka Ocio, Lanius Bizkaiko elkarte ornitologikoaren kideak dioskunez, *“garbiketa zerbitzuek gaizki egin dute lana; hondartzak gaizki garbitu dituzte (hondarraren azpian oraindik kroketa neurriko orbanak daude), eta haitz-guneak eta itsaslabarrak ez dituzte garbitu ere egin”*. Ocioren berbetan, eskualdeko lekurik kaltetuenak Laga, Arrigunaga, Galeako kala bi, Azkorriko ezkeraldea, Bariñatxe eta Sopela artean dagoen eremua, Meñakotz, Billano eta, batez ere, Armintza izan dira.

Lanius elkarteak kaltetuta zeuden 1.000 hegazti baino gehiago jaso ditu orain arte Uribe Kostan (horietako ehunen bat bakarrik bizirik); pottorroak, kaiok eta ubarriok ziren gehienbat, baina *“dortoka ergelak, izurdeak eta ñandu bat ere jaso ditugu”*.

Lau marea beltz izan ditugu. Bostgarrena heltzear ei dago, haizea iparretik edo ipar-mendebaletik badator eta horrela pare bat egunez badabil; oraindik 5.000 eta 10.000 tona bitarteko galipota dago sakanatuta itsasoan. Beraz, adi-adi egon behar gara oraindik.

“Itsasotik 20.000 tona galipot jaso dira eta hondartzetatik, berriz, 1.900”

Arrantzaleak Armintzan galipota porturatzen



zineeskola

Oskar Fernández

Zinema eta kritikaren garapena? (II)

Zinema aretoan pantaila iluntzen denean argiek istoriotik besaukira eramaten gaituzte, alegia fikziozko errealitatek errealitate gordinera. Une horretan bertan prest egongo gara ikusitako filmari buruz gure iritzia plazaratzeko. Iritzi hau sintetikoegia izango da. Filmak garatu duen historiari gugan sortutako inpresio orokorra baino ez da izango. Jakina! hau ardatz nagusia da, baina ezin da gelditu, inondik inora, hitz sintetiko batzuetan: gустatu zait, ez zait batere gustatu, ondo egon da, ez zen hainbestera, eta antzeko hainbat hitz. Batzuetan are okerrago jokatzen dugu eta gure iritzia errealitate maiestatikoak izango balitz bezala filma oso txarra izan dela esatera ausartzen gara, aurretik inolako hausnarketarik egin gabe; eta gainera zoriontsu eta pozik gelditzen gara. Beraz, ikus dezagun gure iritzia plazaratu baino lehenago zer hartu beharko genukeen kontuan hausnarketa analitiko minimo bat egin ahal izateko. Lehendik eta behin, zein gai jorratu dituen filmaren istorioak, gai hori edo horiek proposatutako testuinguruan barruko logikaz garatu ote diren, alegia, nola izan den argumentua, aktoreen antzezpena eta filmaren girotea egokia izan ote den, hau da, sinesgarria ote den proposatutako logikaren arabera, eta amaitzeko, nahiz eta beste elementu batzuk egon arren, gai izan ote garen, filma ikusita, zuzendariak adierazi nahi duen ideia ulertzeko. Análisi honek korapilatsua dirudien arren oso erreza eta emankorra da. 4

zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Laburra baina arrakastatsua

Ibon Antuñano zinemagile getxoztarra saririk sari dabil **Una bala** izenburuko film laburrarekin

Martxoaren 5ean, Ibon Antuñano gazteak Gasteizko Euskal Zinemaren Astearren lehen saria jaso zuen *Una bala* bere bigarren film laburrarengatik. Saria 3.000 eurokoa izan da, bere mailan Euskadin ematen den handiena. Bestalde, martxoaren 13an izan zen film labur horren estreinaldia Espainian Bartzelonako Verdi zinema-aretoan; Madrillgo eta Bartzelonako izen bereko aretoetan egunero botako dute film luzearen aurretik datozen lau hilabeteetan.

«Zuzendariaren filma ikasleen oscarretarako proposatua izan daiteke»

Orain arte, nazioarteko hainbat zinemalditan egon da *Una bala*: Palm Springs, Toronto, Bratislava, Erroma, Puerto Rico, Berlin, Mexiko eta Txile, besteak beste; ekainean, berriz, Tokioko zinemaldi garrantzitsuan parte hartuko du. Hori guztia gutxi balitz, ikasleen oscarretarako proposatua izan daiteke, fikziozko film laburren kategorian. Horretaz gain, Antuñano bere hirugarren lana prestatzen ari da maiatzerako; oraindik ez dauka ideia zehatzik baina Euskal Herrian filmatuko da.

Ibon Antuñano *Una bala* filmatzen

Ibon Antuñanok Bartzelonan bizi den Edgar San Juan mexikarrarekin batera filmatu zuen *Una bala*, Kataluniako hiri horretan bertan. Getxoztarrak zuzendutako film laburrak ia hamar minutuko iraupena du; minbizia daukan eta bere burua hiltzeko bala bat erosten duen gizon baten istorioa kontatzen du. m

Una balak lortutako sariak

- Ikusleen Saria, Sao Paulo
- Bigarren Saria, Kiev
- Epaimahaiaren Aipamen Berezia, Txile
- Lehen Saria, Gasteiz

Ez galdu > Spider (David Cronenberg)

Zinema Paradiso • Non: Getxo Antzokia • Noiz: apirilak 11, barikua • Ordua: 22:00



Film interesgarri eta hunkigarri honek eskizofrenia duen pertsona baten istorio iluna, latza eta tristuraz betetako bizitza kontatzen digu. Ralph Fiennes aktoreak (Dennis Cleg, armaiarra) bikain antzeztan ditu filmaren protagonistaren obsesioak eta desoreka mentalak eragiten dituzten egoerak. Dennis ume zelarik, eta Edipo gaixotasunaz ikuturik, bere aitak ama nola bortizkeri handiz hiltzen zuen ikusi zuen. Aurrerantzean Dennis-en bizitza iluna, garratza eta desorekatua izango da, eta errealitatea eta barne sentimenduak bereiztu ezinean ibiliko da. Bere buruan sortutako armaiarra-sare korapilatsu eta beldurgarriak ez dio une baten ere pakea ematen. David Cronenberg zuzendari kanadiarrak, Patrick McGrath-ek idatzitako eleberririk bikain batean oinarriturik, 2002an pantailatako maisulanetako bat bihurtu zuen istorio hau.

Gaia > Top manta euskalduna



Salduenen zerrendagaz guztiz bat egiten duten diskoak topatu ditugu "top manta euskaldunean"

Top Manta izen xelebrea hartu duen fenomenoaren barruan murgildu gara, baina ez disko piraten gaineko amaiezineko eztabaidan jarduteko, askoz gauza sinpleago baterako baizik. Hain zuzen ere, manta delako horretan euskarazko zerbait topa daitekeen jakiteko asmoak eroan gaitu kalera.

Ikerketa xume baten ostean, hainbat ondoriotara ailegatu gara: batetik, disko piraten salmenta guztiz zabaltzen hasi zenean (duela pare bat urte edo), ezin zitekeen euskarazko ezer aurkitu eskaintzaren barruan. Apurka-apurka, ordea, merkatuaren legeak ezarri dira gure hizkuntzari dagokio-

nean ere; gaur egun, ganorazko edozein saltzaile klandestinok euskarazko diskoren bat edo beste dauka motxilan, salduenen zerrendagaz guztiz bat eginda. Beheko laukian ikus dezakezue zein abeslari eta taldek eduki duten azken hilabeteetan arrakastarik handiena. m

Hauexek aurkitu ditugu

- Mikel Urdangarin, Benito Lertxundi, Fermin Muguruza, Betizu, Gatibu, Betagari, Xabier Montoia, EH Sukarra, Trikitixa bilduma, Balada bilduma...

diskoak

The Coral
The Coral
Sony Music



18 eta 21 urte bitarteko sei gaztez osatutako talde hau Erresuma Batuko musika asaldatzen ari da bere lehenengo diskoagaz. The Coral talde berrien artean berritzaileena da, bai eta urteko bandarik harrigarriena ere. "Bere aurkariek ez dute aukerarik", diote adituek. Disko honek 11 abesti ditu eta onenetarikoa "Dreaming of you" da.

More than you think you are
Matchbox Twenty
Atlantic



Floridatik datorren boskote honek Rob Thomas abeslaria du lider. Bera da taldearen diskoaren hamabi abestien egilea. Ea errepi- katzen duten aurreko disko bien arrakasta, 15 milioi ale- tik gora saldu zituzten eta. Lan berri honetatik kaleratu den lehen abestia ("Disease") izenburukoak Mick Jaggerren laguntza izan dute.

Sentitzen naiz
Maixa
Elkarlanean



Ixiar Orejagaz hainbat dantzalditan egon ostean, Aitzo herrian jaio zen Maixa Lizaribarrek bakar- ka kaleratzen duen lehen-engo diskoa dugu hono-koa. Mundu barneko eta intimoan murgiltzen da eta bihotzean pil-pilean daraman sentsibilitateari atarabide samur eta amultsua eskaintzen dio.

Zuzenean >

Víctor de Diego group



Barrikako Golfo Norte taberna ezagunak zapaturu eskaintzen du kontzertu bat. Apirilaren 5ean, Víctor de Diego Group bartzelonarrak izango dira gonbidatuak. Lau

musikaririk osatzen dute taldea, eta hainbat disko dauzkate kaleratuta. Gainera, kontzertu ugari eman dituzte, baita nazioarte mailan ere, urte luzetako ibilbide oparoan. Musika berezia egiten dute, jazz-atik hasi eta rock-eraino doazen estilo ugari batuta, eta erritmo latindarrei ere tartea eskainiz.

Víctor de Diego Group
Apirilak 5, 23:00, Golfo Norte tabernan

Musika > Doinu eliztarrak

Datorren apirilaren 4an, arratsaldeko 8'30etan eta Algortako San Nikolas elizan, Aitor Olea Juaristi durangar organojoalek kontzertua emango du. Tresna horri dagokionez Euskal Herrian dagoen musikaririk garrantzitsunetakoa da Aitor Olea, duela pare bat hilabete Aus_Art disketxeak organoari eskaintutako bilduma berezian bere disko bat argitaratu izanak erakusten duenez.

esaterikbadut

Esti Ezkerra

Biografiak

Iaz Alejandro Dumas eta Emile Zolaren urteurrenei begira jarri zen literatur mundua. Aurten, beste batzuren artean, Marguerite Yourcenarren ospatuko dugu. Logelan zehar, handik eta hemendik pilatzen diren liburu dorreetara jo dut. Azkenik aurkitu dut bilatzen ari nintzena. Hadrianoren oroitzapenak. Yourcenarrek berak Erromako enperadorearen inguruan idatzi zuen liburu mardula. Jainkoen loria eta gizaki hilkorren miseriak ezagutu zituen gizona izan zen Hadriano. Bai, merezi zuen biografia bat. Irratian, Iraken kontrako gerra hasiera iragarri du George Bushek. Lehen esandakoa gogoratu, eta pentsatzen jarri naiz. Zenbat biografia ez ote diren idatzi? Zenbat pertsonaia ez ote diren modu horretan letra larriz idazten den historiara igaro? Biografia horietatik zenbatek islatu dute errealitatea, zenbatek heroi bihurtu dituzte gizaki hilkor miserableak besterik ez zirenak? Bonbardaketa ez omen da, Golkoko gerran bezala, masiboa eta bidegabea. Oraingoan, objektiboak ondo finkatu dituzte Etxe Zuriaren itzalean babesten direnek, halaxe dio irrati esateriak. Garai batean, biografiak pertsona hil ostean idazten ziren. Gaur egun, arrakasta handiagoa dute in situ egiten direnek. Hainbat idazleri irakurri diegu obrari aurreratzen zaizkien egileei buruzko istorioak. Hau da, ezer argitaratu aurretik, beren biografia txukun idazteaz arduratzen dira. Ez dut uste Bush, Aznar edo Blairri idazteko grina inoiz piztuko zaienik, baina hasi dira beren biografien nondik norakoak zehazten. Munduaren salbatzaile gisa igaro nahiko lukete historiara, hiru mosketarien bertsio berriak. Hala ere, ez dut uste Yourcenarren moduko idazle finik lortuko dutenik biografia horiek paperera eramateko. Ondo jakin beharko lukete hiru mosketari ausartek biografiak itxuraldatu daitezkeela, baina horretarako ere, artea behar dela. Eta bonbek ez dute arteaz ulertzen.

Idazle gazteak Getxon

Erakusketa batek azken hamarkadan agertutako euskal idazleen berri emango du

Martxoaren 25ean hasi zen, Algortako erakusketa aretoan, *XXI. mendeko idazle berriak, hain zuzen ere* izeneko erakusketa. Apirilaren 12ra arte egongo da ikusgai 30 idazle berriren ibilbidearen gaineko argibideak ematen dizkigun ekimen honek. Euskal Idazleen Elkartearen eskutik dator-



kigu erakusketak, idazleok egindako lanak ez ezik, euren biografiak, argazkiak, argitaratutako liburuen zerrendak eta bestelako kontu eta bizipen batzuk ere agertzen ditu.

Harkaitz Canoren hitzaldia

Martxoaren 25eko aurkezpenean Harkaitz cano lasarterra egon zen Algortan. Olerkiak irakurri, liburuak sinatu eta bertan bildutakoei zuzendu zitzaizen Cano. Hasiera bikaina azken urteotan euskal literaturaren erreferente bihurtu diren hainbat egileez jardungo duen erakusketarako. Besteak beste, Harkaitz Cano bera, Unai Elorriaga, Urtzi Urrutikoetxea, Kirmen Uribe, Jasone Osoro edota Asier Serrano aipa ditzakegu *XXI. mendeko idazle berriak*-ek biltzen dituen 30 horien artean.

Erakusketa 14 eta 18 bitartekoentzat pentsatuta dago, baina edonor parajetu daiteke bertara. Algortan egon aurretik, beste zenbait hiritan ere ibili da, abenduko Durangoko azkoan esaterako. Gure artean egongo den egunetan, goizeko 10etatik eguerdiko 1etara eta arratsaldeko 6etatik iluntzeko 9'30etara ikusi ahal izango da. Sarrera dohainik da. m

Harkaitz Cano idazlea

Unai Elorriaga > idazlea

“Literaturak obsesionatzen nauelako idazten dut”



SPrako tranbiaren gaztelarazko bertsioa plazaratu berri dio Alfaguara argitaletxeak Unairi

Iaz SPrako tranbiaren arrakasta zela-eta ekarri genuen Unai aldizkarira. Orain, Van't Hoffen Ilearn aurkezpena da aitzakia. Berak nahiago luke komunikabideen hainbeste dei jaso ez eta hurrengoa idazten hasteko lasaitasun handiagoz ibiltzea. Edozelan, oso atsegina (eta lerrook islatzen dutena baino askoz oparoagoa) suertatu zen orain guztiek gorapatzen duten gure lagun Unaigaz egindako berbalditxo hau.

—Estilo berezia daukazula diote...

—Ez dakit berezia, bitxia edo diferentea den. Hori jakiteko munduko literatura osoa irakurri beharko nuke, eta ez dut %0,00001 ere irakurri.

—Gustatzen zaizu parrafo bat esaldi beragaz hasi eta amaitzea, esaldiko berben ordena aldatuta... Konturatuta egiten duzu?

—Bai. Hor eritmo bat dago. Ikastolan beti irakatsi digute ez dela errepikatu behar, sinonimoak erabili behar direla...

eta estilo liburuek hori diote gainera. Niretzat hori guztiz gauza artifiziala da. Batzuetan errepikapena behar da erritmoari eusteko, eta gauza bat inportantea dela azpimarratzeko. Gainera ez dut egiten errepikapena beste barik, errepikapena gehi zeozer gehiago egiten dut.

—Zure pertsonaiek obsesioak edukitzen dituztela ematen du...

—Bai, baina zentzu onean. Obsesio bat galbidera eramaten zaituena izan daiteke, baina lan egiteko tresna ere bai. Nik lite-

raturak obsesionatzen nauelako idazten dut, baina ez dut uste ezer txarra denik.

—Hirugarren nobela gogoan?

—Guztiz pentsatuta, baina astirik ez. Titulua *Vredaman* izango da, argitaletxeak uzten badit. Hori beste kontu bat da.

—A, bai?

—Bai. Orain arte izenburu biak onartu dizkirate, baina batzuetan ez da aukerarik egoten, idazle txikia izanda.

«Guztiz pentsatuta daukat hurrengo eleberria»

—Hala ere *katxe* nahikoa daukazu hala-ko gauzak zuk zeuk erabakitzeke, ezta?

—Orain bai, baina *SPrako tranbiaren* portada ez nuen nik aukeratu. Oraingoan ezetz esan dut, eta beste bat aukeratu dut.

—Sentitzen duzu bi urtean behin eleberriri on bat idazteko arduraren zamarik?

—Ez, bi urtean behin ez. Uste dut hirugarrena idazteko gehiago egongo naizela.

Honekin bi urte eta erdi egon naiz eta azkenean denbora apur bat falta izan zait. Beste hilabete bi itxarongo nukeen errepaso bat egiteko, baina konpromisoak zeuden eta...

Ea oraingorako hiru urte egon nintzke. Eta ona? Nik idazten dudanean beti pentsatzen dut “hau izango da munduko eleberririk onena”.

Gero hala izatea... Baina helburua altu jarri behar da, debalde da eta.

—Inoiz kasurik egin ez dizutenak orain hasi dira egiten...

—Bai, kurioso da. *SPrako tranbiaren* aurkezpenean hiruzpalau kazetari egon ziren. Oraingoan, berrogei baino gehiago. Azken batean kazetariak ez dauka errurik, baina itxurakeria iruditzen zait. Harkaitz Canoren aurkezpenetara, esaterako, ez doa ia inor, eta Harkaitz Cano ni baino txarragoa da ala? m

liburuak



Zortzi kontakizun
Isaac Bashevis Singer
Alberdania

Desagertutako mundu baten berri ematea, hori izan zen idazle poloniar judu honen eginkizuna. Hementxe daude Singerren kontakizun famatuena batzuk, “Yenti”, esaterako.



Mila gau eta bat gehiago
Patxi Zubizarreta
Erein

Mundu arabiarra oso gustokoa duen Ordiziako idazleak klasiko ezagun hau itzuli du. Istoria guztien kontalaria Xerezade da eta soil-soilik ipuinen bitartez salbatu zuen bizitza.



Ararat mendiaren sumina
Yasar Kemal
Alberdania

Kemalen obra guztian agertzen diren ezaugarri gehienak biltzen dira Fernando Reyk itzultitako eleberririk onetan: Ekialde Hurbileko ahozko tradizioa eta herriaren itxaropena eta miseria, alegia.

Adi lagun!



Kafe Antzokiak antolatzen dituen ekitaldietarako sarrerak lor ditzakezu. Apirilak 2a baino lehen UKra deitzen duten lehenengo 2 pertsonak bina sarrera lortuko dituzte.

Apirilak 3, osteguna 22:00. **JABIER MUGURUZA**

Apirilak 4, ostirala 22:00.

SAGARROI & FISHHOTZ RUIDO

Apirilak 5, larunbata 22:00. **JUAN MARI BELTRAN**

Apirilak 10, osteguna 22:00.

KING KHAN & COOL PANICS

deitu!
94 491 13 37

BILBO MICRO



“1982az geroztik soluzio informatikoak eskaintzen”

ELKARTE ANONIMOA

Colón de Larreategui, 25 / 48001 BILBAO
Tf. 4230212 / Zerbitzu teknikoak: 4230213

[sarean]

Pilotarien sailkapena

ATPren sailkapena bailitzan, webgune batek pilotariei **puntuak** ematen dizkie

Tenisean argi eta garbi dakite denek nor den nor. Inoren aurka jokatu aurretik, ATPko sailkapenean tenis jokalariren izena bilatu eta gutxi gorabehera irabazteko zein aukerak dituen jakin daiteke. Beti sorpresak egoten dira, baina, azken finean, lehenengo hamarretara heltzea meritu handia da. Iruñeko webgune batek, (*manista.com*), sistema hau eskupilotara moldatu du. Pilotariak partiduak irabazi ahala puntuak eskuratzen ditu, eta beraz, sailkapenean gora doa. Bitxia da taula astez aste nola aldatzen den ikustea. Webgune honetan badira beste hainbat zerbitzu ere: buletin bat, berriak, partiduen zuzeneko emanaldiak... Pilotazaleentzako iturri ederra. ^m



Titin III da orain lehenengoa rankingean www.manista.com

webgida

EGUNERO

>www.egunero.info

Webgune bat ixtea erraza da. Zorionez, erraza da beste bat zabaltzea ere. Egunkaria-ko kazetariak webgune dotorea sortu zuten ordu gutxian, eta, hortxe ditugu, goizero euskaraz berriak hedatzen.

EGURALDIA

>www.eitb.com/euskara/eguraldia

EITBko webgunean Euskal Herrian hurrengo egunetan izango den eguraldia iragartzen dute. Praktikoa.

GOOGLE

>google.dirson.com

Google beste edozein webgune baino boteretsuago bihurtu da urte gutxian. Berari buruzko hamaika berri jakiteko sartu w-

Sarean aurkitu dugu > Gerraz



Internet-en irudi harrigarrik edo barregarrik topatzen baduzu, bidali UKra. Interesgarrienak aldizkarian argitaratuko ditugu. ukaldizkaria@telefonica.net

Euskal prentsa >

ARGIA astekaria ezagutarazteko kanpaina

ARGIA astekariak eta UK aldizkariak elkarlan hitzarmena sinatu dugu

Iaz hasitako bidari jarraiki, elkarren arteko harremanak sendotzeko eta euskarazko prentsaren esparruan bakoitzak jokatzeko duen papera indartzeko elkarlan hitzarmena sinatu berri dugu.

Hori dela eta, ARGIA astekariak, berri ezagutzera emateko Euskal Herriko hainbat erakunde eta komunikabiderekin batera aurrera daraman kanpainaren barruan, ARGIA astekariaren 3 ale doan jasotzeko aukera eskainiko dizuegu UKren irakurle guztioi, datorren alearekin batera.

Kanpaina hau, martxoaren hasieran burutu nahi baldin bagenuen ere, “Egunkaria”ren itxieraren eta euskal prentsak jasan duen erasoaren ondorioz atzeratu behar izan dugu. Baina eraso guztien gainetik aurrera egiteko erabaki irmoa dugunez, inoiz baino erabakitsuago eta ilusio handiagoz heltzen diogu elkarlan honi.

ARGIaren 3 ale horiek jaso nahi baldin badituzue, beraz, honako hau egin behar duzue: hurrengo alearekin batera jasoko duzun postala bete eta bidali (ez du

zigiturik behar). Bestela, 943-371545 telefonora deitu (Edurnez galdetu) edo zure datuak eta eskaera harpide@argia.com helbidera bidali.

Euskal prentsak bizi duen une zail honetan, denok eskaini genezakeen laguntzarik onena, hain zuzen ere, hauxe da: euskarazko egunkaria eta euskal prentsa erosi eta irakurtzea. Animo! ^m

Harremanetarako: 943 371 545



Egunkariak prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero, etxera eramaten dizugu egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

[komunikazioa]

Ikusi >

Teknopolis

Euskal Telebistak dibulgazio-programa honen bosgarren denboraldiari ekin dio, eta oraingoan, Nerea Pikabeak egiten ditu aurkezle lanak. Ordu erdiko saio honen helbururik behinena zientzia eta teknologiaren mundua publiko orokorrarengana hurbiltzea da, baina beti dibulgazioaren ikuspegitik. “Teknopolis” ez da inola ere adituentzako programa; inguruan daukagun errealitate zientifiko-teknikoa ulertzeko interesa duen edonorentzat da. Domekero ematen du ETBk, eguerdi aldean gaztelaniaz eta 20:00etan, beriz, euskaraz.

Irakurri >

Entzun



Entzun! aldizkaria 1996an abiatu zen, Tolosan, besteak beste Joxi eta Imanol Ubeda musikari ezagunen gidaritzapean. Duela sei hilabete, Eragin.com enpresak hartu zuen Entzun! argitaratzearen ardura. Esan dutenez, “betiko filosofiari eutsita, aldizkariaren izaera guztiz aldatu dugu”. Euskal musikaren inguruan informazioa zabaltzen jarraituko dute, baina diseinua eta gaiak jorrazteko modua zeharo berriro dituzte, besteak beste kanpoko musikari leku emanez. Entzun! bihila-betekaria da, eta 52 orrialde dauzka.

Harremanetarako: 948 12 19 76

uhinakFM

Getxo Irratia	87.6
Koska Irratia	89.8
Radio Euskadi	92.4
Euskadi Gaztea	94.7
Bilbo Hiria Irratia	96.0
Tas-Tas Irratia	97.0
eitb irratia	100.1
Bizkaia Irratia	102.6
Euskadi Irratia	104.4
Pititako Irratia	107.0

Gure espezieak >

Schreiber muskerra



- **Izen generikoa:** lacerta schreiberi
- **Izen arrunta:** schreiber muskerra
- **Tamaina:** 40cm baino gutxiagoko luzera.
- **Bizilekua:** landazabala; batez ere, putzuak sortzen diren lekuetan.

Tamaina ertaineko muskerra da, indartsua eta berde-horiska kolorekoa. Arrek emeek baino gorputz indartsu eta sendoagoa dute. Kolore aldetik, emeen tonalitateak arreoak dira. Aldi berean, biek narrio beltzak dituzte ornoan gora ta behera.

Landazabalean bizi da; baina musker berdearekin (Lacerta viridis) duen lehia dela eta (azken hau ugariagoa da gure eskualdean), ingurune hezeenetan egoten da. Beraz, berau ikusteko, zelai eta larreetan putzuak sortu diren lekuak eta sasiz inguratutako ubideak dira egokienak. Musker berdearekin nahastea erraza da, habitat eta ohitura antzekoak baitituzte. Larrañazubi ibarrean eta Galeako zenbait tokitan (Kandelu urbazterrak, besteak beste) ugariagoak dira schreiber muskerak.

Beste hainbat musker legez, oso

«Musker berdearekin nahastea erraza da, habitat eta ohitura antzekoak baitituzte»

lurraldekoa da, batez ere, araldian dagoenean. Artega jartzen da eta bere eremuan sartzen diren musker arrak erasotzen ditu. Udaberrian gertatzen da hau, eta orduan ohikoa da eguzkitan bikoteka ikustea. Kopulazioaren ostean, emeak bost eta hogei arrautza artean jartzen ditu arrakalaren baten edo lurpean. Besteak beste, intsektu, araknido eta fruitu bigunak (pikuak eta masustak) jaten ditu.

Gaia > Autoek sortutako kutsadura

Zer gertatzen da autoa piztean?

Kotxeen **gasen igorpenak** gutxitzeko sistemak ez dira guztiz eraginkorrak

Miguel Angel Gutiérrez Ingeniaritza Kimikoko katedraduna da EHU. Azaldu digunez, autoek bi sustantzia kutsatzaile mota botatzen dituzte batez ere: *“Alde batetik, CO₂ eta erre gabeko hidrokarburoak; bestetik, nitrogeno oxidoak”*. Diesel motorea daukatenez, horiez gain, hondakin solidoak igortzen dituzte.

Legediak auto bakoitzak bota dezakeen gas kaltegarri kopurua mugatzen du. Horregatik, gasolinazko kotxe berri guztiek eta diesel askok katalizatzaile eroan behar dute, *“bestela ezin izango lukete legedi hori bete”*. Katalizatzaileek, labur esanda, zera egiten dute: sustantzia arriskutsuak berez atmosferan dauden sustantzia bihurtu (CO₂, nitrogenoa, oxigenoa...).

Hala ere, katalizatzaileen eraginkortasuna ez da erabatekoa. Alde batetik, kotxea pizten denetik lanean hasten diren arte denbora igarotzen da, *“temperatura altua behar dutelako lana ondo egiteko”*. Katalizatzaile mota bi daude. Batak CO eta hidrokarburoak “garbitzen” ditu, eta

autoa pizten denetik segundo batzuk baino ez ditu behar lanean hasteko; bestea nitrogeno konposatuz arduratzen da, eta motelagoa da. Izan ere, nitrogenoa daukaten sustantzien %80 soilik purifikatzen da. COaren kasuan, ia %100 da. Bestalde, kotxe zahar askok ez daukate katalizatzailerik. Multzo horretan sartzen dira, esaterako, *starterra* daukaten guztiak. Beste batzuek, berriz, bakarria daukate, aipatutako mota biak bakarrean biltzen dituen. m

«Legediak auto bakoitzak bota dezakeen gas kaltegarri kopurua mugatzen du»



Sasoia da > udaberria ezin gal dezakegun ikuskizuna



Kolore alaien eta usain atseginen urtaroa dugu udaberria. Neguko loaren ostean, natura berpizten da osterera ere. Zelaia San Jose lorez bete dira, zuhaitz asko (sahatsak, adibidez) loretan ditugu eta beste hainbaten kimuak ere irtetzeaz daude. Egunak sano luzatu dira, eta aspaldiko partez, eguzkiaren berotasunaz gozatzen hasiak gara. Eta txoriak? Txoriak, aurreko hilabeteetako isilaldi tristearen ostean, txioka ditugu osterera ere. Kantuaren bidez, arrek lurraldea aldarrikatu eta emeak erakarri nahian dabilta. Heldu da, bai, animalia guztiak, eta baita gizakia ere, zorutzen dituen (gaituen) sasoi... udaberria!

Txangoa >

Zugaztieta edo Arboleda



Inguru zingiratsua da gaur egun Arboleda

Testua eta argazkiak: **Gonzalo Iribarnegaray**

Bizkaiko meatzaritzaren garai gogoangarri (batzuenzat behintzat) hartarako bidaia egiten dudun bitartean, hango zingira eta mendixketan paseatzen ari naiz eta beste garai batean izan zena dut buruan. Zugaztieta edo Arboledaz ari naiz, jakina. Egia da gaur egun parajeak bere jatorrizko izenarekin zerikusirik ez duela, egia da gizonak paisaia eraldatu duela eta antzineko meategiak gaur egun inguru zingiratsu bihurtu direla. Baina, hala ere, hango bideetatik paseatuz natura ederto goza daiteke.

Hemen meatzaritza museo modernoa bisita daiteke, lakuetan arrantza egin, in-

guruko tontorretara igo, edo, Sabina jatetxe ezagunean indaba bazkari ederra egin.

Arboledara autoz joan zaitezke; hala ere, funikularrean igotea askoz atsegina- goa egingo zaizu, bertatik Ibaizabalaren itsasoratze ederra ikusiko duzu-eta. m

Zelan heldu

- Autoz. Trapagatik irtenda, N-634 errepi-dearen ezkerrean, Arboledara doan bidea hasten da, 6 km.

- Trapagan bertan, meatzariak meategietara igotzen zituen funikular bera hartu.



Mendi kirolak >
Iraupen eskia

- **Non:** Abodin, Larra-Belaguan (Nafarroan); Linza-Anso, Gabardito-Hecho (Aragoien).
- **Noiz:** Eski-denboraldian.
- **Materiala:** eskiak, botak eta bastoiak.

Askok iraupen-eskiaren lehiaketa izaera baino ez dute ezagutuko, baina iraupen-eskia astebururo edonork bere indar eta gaitasunaren arabera egin dezakeen jarduera da. Zalantzarik gabe, gure inguruan, eski alpinoa da jarduerarik ezagunena eta jende gehien biltzen duena. Iraupen-eskia, osterera, ez da hain ezaguna. Ohiko eski-estazioak negu-kirolzaleek goitik behera betetzen dituzten bitartean (pistak, sarbideak, aparkalekuak...), iraupen-eskia haren ordezkot moduan azaldu zaigu.

Jarduera ederra da ibilaldi luzeak egiteko; oinez luzeegiak eta nekosoak izan daitezkeen bidaldiak egin baititzakegu, eta honela, ia helduezinak diren bazter ederrez gozatzeko aukera izango dugu. Gainera, materialari dagokionez, eski luze estuak, finkadurak, bota arinak eta bastoi luzeak baino ez dira behar baso isil eta koloretsuetan barneratzeko.

«Oinez nekosoak eta luzeegiak diren bidaldiak erraz egin daitezke»

Halaber, iraupen-eskiak ez du teknika handirik eskatzen eta sasoi onean egotea ere ez da ezinbesteko baldintza. Nahiz eta, jakina denez, gorputzaldi onean egoteak mendian gehiago gozatzeko aukera ematen duen.

Entrenamendu osoagoa bilatzen duenak eskura du duela gutxi asmatu duten jarduerak: roller-eskia. Lehiaketetan ibiltzen dirennei begira sortu bazen ere, gaur egun, guztion eskura dago. Errepidean ibiltzeko prestatutako eskien antzekoak dira (gurpilak daramatzate), eta hauei esker, teknika hobetu eta gorputzaren goiko giharrak (besoak, lepoa...) landu daitezke, eskian egiten diren mugimendu berak egiten baitira.

Egun, eski alpino estazio ezagun gehienek iraupen-eskia egiteko pistak ere badituzte, baina modalitate honetarako bakarrik prestatutako dauden eski-estazioak ere baditugu etxetik gertu: Abodi eta Belagua Nafarroan; Linza-Anso eta Gabardito-Hecho Aragoien, edota Lunada, Kantabriar. Eta elur nahikoa egin duenean ere, kotzez ordu eta erdira dauden Aralar, Andia edo Urbasa mendilerroetan.

Gogoa >

Nahaste obsesibo konpulsiboa

Nagore Etxebarri psikologoa

Gaitz hau ere loturik dago hersturarekin (gogora dezagun, hersturan, denboraren poderioz, obsesio bilakatzen dira hasieran zentzurik gabe jasaten diren zenbait ideia, pentsamendu, bulkada edo irudi iraunkor). Obsesio gehienak hiru motakoak izaten dira: indarkeriaren, zalantza edo kutsatua izatearen ingurukoak. Esan dudana bezala, hasieran subjektuak badaki obsesio horiek zentzurik ez daukatela, eta ahaztea lortzen du, baina irauten dutenean buruhauste eramanezinak bihurtzen dira.

Kasu horietan konpulsioak etor daitezke. Hauek intentziodun jokabide errepikakorak dira eta hauei erresistentzia jarriz gero izugarriko tentsioa jasaten du gaixoak. Orohar, subjektua egoera ezeroso baten aurrean aurkitzen denean, sentsazio hori neutralizatzeko halako jokabidea aurrera eraman behar duela sentitzen du, nahiz eta bien arteko lotura zentzuzkoa ez izan. Dena den, subjektuak ez du inongo plazerrik lortzen eta gainera egin ondoren gehiegizkoa dela onartu dezake. Adibiderik arruntenak: eskuak maiz garbitzea, kontuak behin eta berriro ateratzea...

Aipatu behar da beste zenbait nahasteetan antzeko jokabideak agertzen badira ere (janariarekiko nahasketak, alkoholarekiko menpekotasuna, eskizofrenia) ez dira gauza bera, eta bide batez, alkoholaren, drogen eta depresioaren eragina oso katagarria dela gaitz hau bideratu ahal izateko.

zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Gorputza >

Umeen sukarra

Xabier Txakartegi pediatra

Sukarra gorputz tenperaturak gora egitea da. Goratze hori metabolismoaren areagotzen denean ager daiteke (esaterako, ariketa fisikoa egin ostean, edo ume txikien kasuan, bularra hartu ostean). Baina ia beti, sukarra infekzioaren adierazle (horren erakusle nagusia hain zuzen) dugu.

Gehienetan birusen batek eragindako gaixotasuna adierazten du sukarrak, eta arina eta behin betikoa da. Aldi gutxi batzuetan, ordea, bakterioak eragindakoa da eta kontu handiagoa eskatu ohi du bere jarraipenak.

Zer sendabide erabiliko dugu umeen sukarrantzat? Oro har, besapeko 38°ko baino gutxiagoko kalenturak ez du sendagirik eskatzen; beharbada, sendabide fisikoa erabil daiteke: arropa gutxitu, bainu epelean sartu, ur freskoa eskaini... Tenperatura altuagoa denean, medikuarengana eraman baino lehen, tratamendu fisikoaz gain, antitermikoekin saia gaitezke: azido azetil-saliziliko (gero eta gutxiago erabiltzen da, ez dago argi zergatik), ibuprofenoa eta paracetamol batez ere, hirurak umearen pisuaren arabera dosietan.

Haurtzaroan sarritan agertzen da sukarra, beste adinetan baino gehiago, umeak ez duelako defentsarik amarengandik hartutakoak agortzen direnetik. Birus batzuek eragindako gaixotasunak larriak badira ere, ez dira kezkatzekoak orohar; aldiz, bakteriek eragindako batzuk dira baztertzekoak sukar baten aurrean. Orduan, noiz merezi du arduratzea sukarrik? Ez da erraza erantzutea, baina ondokoaren moduko egoera baten aurrean gaixotasun serioaren abisuan ipini beharko ginateke (abisuan ipintzeak ez



Era honetako bainu-jantziak ikusiko dira aurten ("Kantxa" kirol dendak utzitako argazkia)

du esan nahi derrigorrez gaixotasun serioa dagoenik; alderantziz, hauetariko sintoma ezak ez du beti gaixotasun serioa izatea baztertzen):

—Hiru hilebete baino gazteagoengan sukarra beti hartu behar da gaixotasun serioaren adierazletzat, kasu honetan "erruduna" da errugabetasuna frogatu arte.

—Orbanak: kalenturarekin batera presioz desagertzen ez den orbanik agertuz gero, lehenbailehen eraman behar da umea osasun zentro batera.

—Sukarra gorantza joatean hotzikara izateak (hotzikara hotzikara da, ez hotz sentitzea), kontu handiagoa eskatzen du.

—Sukar altuarekin zurbiltasuna erakusteak, eta ez kolore betea, kontu handiagoa eskatzen du.

—Antitermikoekin nekez jaisten den sukarrak kontu handiagoa eskatzen du erraz egiten denak baino. m

Hondartzan ibiltzeko (i)

Horrelakoak izango dira **gizonezkoek aurten jantziko dituzten bainu-jantziak**

Dagoeneko dendetan daude. Kirol-arropa munduan 18 urte daraman Joseba Aranguren Morotxok gizonentzako bainu-jantzi berrienak erakutsi dizkigu. Hurrengo UKko zenbakian, emakumezkoenak ikusgai.

Eguraldi txarra zela-eta, iaz bainu-jantzi gutxi saldu ziren. Horregatik (eta markek gauza berri eskas ateratu dituztelako), aurten ez dago berrikuntza askorik; hala ere, nagusia luzeran datza. "Lehen, oso bainu-jantzi luzeak erabiltzen zituzten askok (batez ere gazteek), belauetik behera eta galtzamatzen tankerakoak; baina orain bainu-jantzien bankak txikiagotu egin dira, ez dira hain luzeak eta kiroleta-

ko galtza baten luzera daukate", diosku Joseba Aranguren algortarrak. Beste joera bi aipatu dizkigu: "Gutxi ikusten dira baina gero eta jende gehiago ausartzen da likrazko bankadun bainu-jantziak eta igerilekuko slipak eramaten bainu-jantziaren azpitik jantzi"; azkenengo joera hori surflariengan ikusten da gehien bat.

Ehunak eta koloreak

Egun, poliamidak eta ehun arinak nagusi dira, ez dutelako hainbeste ur xurgatzen eta azkar lehortzen direlako. Bestalde, "gorriak modan daudela diote; dena den, gizezko kolore bakarrekiko nahiago izaten ditugu". Halere, estapatuak eta loredunak ere ikusiko ditugu aurtengo udan. Arangurenek argitu digunez, erosoagoak dira goma eta lokarria dauzkaten bainu-jantziak, gerri guttiara ondo egokitzen direlako. m



I
I aki
Bitxitegia
Ω
OMEGA AGENTZIA OFIZIALA
Villamonte T: 4302345
Algorta

Jose Unzurrunzaga Astigarraga
HORTZ?KLINIKA
Tel. & Faxe: 94 460 06 21
Andikoetxe 2, behe ezkerrean
ALGORTA

Errotalde
ileapaindegia
HARTU TXANDA TELEFONOZI!
T: 460 38 90
Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO
GIZONENTZA -
KO MODA
Telletxe 5
ALGORTA
T:

Mar a Jes s
ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA
Alangobari 10
T: 4910821
ALGORTA **HARTU TXANDA**

ALBE alerik ale

Bertsotan gelditu gabe

Ekaitz Larrazabal > Patxada eta umorea barru-barruan

Testua: **Josu Arroyo** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

Kantuan, bertso lanean, sentitzen da bapo, giro hotzean egoten ez dakielako. Handik eta hemendik asmatuz arrazoiak, “Katxo” gureak, Ekaitzek, ekaitzak, berdin Algortan edo Tuteran, astintzen ditu beheak eta goiak.

—Zenbateraino da “Katxo” bertso eskolako bertsolari?

—Gaztetxoentzako ondo dago eskola, eta mantendu behar da, baina hotzegia da neuretzako. Gainera, nik tabernetan ikasi nuen bertsotan. Ikastola garaitik gustatu izan zait bertsolaritza, baina ni lagunarteko giroan hasi nintzen bertsotan, lehenengo puntuka, gero koplatan... Gero, beluago, Fredi eta Jagobaren bidez sartu nintzen eskolara, eta Katxo eskolan agertu zen lehengo egunean, hara non agertzen den Euskal Telebista! Lau bat bertso bota nituen egun hartan, inolako lotsarik gabe. Nik inoiz ez dut lotsarik izan bertsotan egiteko.

—Eta zein dira tabernako bertsolariaren ezaugarriak?

—Edozein egunetan, edozein ordutan, animatzen den edonorekin bertsotan egitea da kontua, nekatu arte. Berdin da non kantatu, giro guztietara moldatzen jakin behar du bertsolariak, tabernako bertsolariak, plazetan ibiltzen denak... Bertsolariaren lana ez da amaitzen saioa bera amaitzean, gero hori behar den moduan borobildu behar da, zure inguruan daudenak asetu arte. Horretan gu apur bat “todoterrenoak” gara.

—Baina bertsotarako gaitasun hori lor-



«Berdin da non kantatu, giro guztietara moldatzen jakin behar du bertsolariak»

tzeko, nolabaiteko prestakuntza beharrezkoa izango da...

—Gutxi gorabehera hiru urteko lanaren emaitza da orain lortu dudana mailaxoa. Gainera, nik inguruko guztiengandik ikasi dut zer edo zer; jendea entzuten, jendearekin egoten... Nire ustez, garrantzitsua, behin bat-batean aritzeko maila hartuta, patxadaz kantatzea da. Estresatuta bazoaz bertsotan egitera, jai duzu!

—“Txapel Bete Bertso” ekimenean saio batzuk eginda, zein balantze egiten duzu?

—Saio batzuk egin ditut bai, Portugaleten lehenengo, gero Bermeon, Algortan ere

ERAKUSLEIHOA

- ▶ Ekaitz Larrazabal Gutierrez. Lagunartean «KATXO».
- ▶ 1979an jaiotzen, Santurtzin.
- ▶ Oinarrizko ikasketak, Algortako San Nikolas ikastolan.
- ▶ DBH, Getxoko Aixerrota Institutuan.
- ▶ Egun, Artearen Historia ikasten dabil, Gasteizen.

Gaztetxearen alde

Bertsolaritzailea: **Ekaitz Larrazabal** / Doinua: **Habanera**

- 1** Uribe kostan ez al gauz gaztetxearen beharrez? Alternatiba bakarra tabernak dira tamalez; ta hainbat etxe huts dagoz danok jakin dakigunez, bete gura doguzanak jarduera kulturalaz. Udaletxea kontrako agertzen da betiko lez; indarraren arrazoiak eraikinak bota artez. Gazteok jarraituko du arrazoiaren indarrez: etxeak botako deurez, baia gure ideiak ez!
- 2** Sastraka gaztetxeagaz hasi ginan gazte asko; garbitu ta birziklatu gendun herriarendako. Hori kaltegarri danez, nola ez zuten botako! Iberretxune, Sopela, Burdinola gerorako; lau gaztetxe bota deurez urtebete baterako. Antza egiten dogunak ez dau balio ezertako. Hameko etxe zar danak batzuen negoziaroko... Uribe Kostan lekurik ez al da gazteondako?
- 3** Espekulatuzaileana dogu kontu sano lohia; lurak merketxu erosiz garesti saltzera doa. Herri osoa kaltetuz horrek jotzen deure goia! Gaizkile batzuk gabela agintarien sermoia; eraso horreen aurre ez dekogu paranoia, jakin badakigulako dekogula arrazoa. Ez dogu inoiz galduko borrokarako sasoa; gora okupazioa ta kultura herrikoia!

HIRU LERROAN

“Txapel Bete Bertso bezalako herri ekimenak bat datoz nire bertso filosofiarekin”

kantatu dut... eta nahiko pozik nago egingandakoarekin. Ni saio “serioegietan” ez naiz hain ondo moldatzen, eta “Txapel Bete Bertso” bezalako herri ekimenak nire bertso filosofiarekin bat datoz.

—Martxoaren 29an, berriz, Areetako Musika Eskolan, II. ABRA Saria, eta tartean, zu zeu...

—Bai, bai, ni edozein tokitan kantatzeko prest nago. Agian apur bat urduriago egongo naiz, baina dena eman behar bada, emango dugu, dudarik gabe. Helburua beti da jendeak gurekin ondo pasatzea, espektakulua ematea. Ea neska eder asko etortzen diren egun horretan animatzea, hori ere garrantzitsua da eta!

—Ibiltzen zaren bertso erritmoan ibilita, pasadizo eta gertaera bitxiak asko izango dira, ezta?

—Behin Mamarigara joan ginen kanta-

tzera, bertso bazkari batera. Bazkaria amaitu zen, eta gero poteo luze bat etorri zen; hantxe ibili ginen, jo eta ke kantuan. Kontzertua egon zen bertako Gaztetxean, gero guk ere kantatu genuen... Belu samar etxeratu, eta hurrengo egunean berriro itzuli ginen Mamarigara, bazkaltzera. Tabernan bazkaltzen geundela, bezperako saioan egondako neska batzuk agertu ziren, eta hantxe hasi ziren, “oraindik bertsotan! Herri guztiak daki zuen berri, eta zuek oraindik hemen bertsotan...”, guztiz harrituta. Horrelakoak gara gu...

Pasadizo bat, eta beste bat... luze ibili ginen berbetan Ekaitzekin, baina ez kezkatu, horiek guztiak liburu batean argitaratzeko prest agertu zen gureru arrimatu-tako idazle gazte bat. Momentuz bertsolari atipiko honen bertso dotoreekin konformatu beharko dugu. m

BERTSOAGENDA

II. ABRA SARIA

Martxoak 29, 19:00etan, *Andres Isasi Musika Eskolan*. Bertsolariak: Miren Ibarluzea, Iñigo Izagirre, Jon Martin, Ekaitz Larrazabal «Katxo», Miren Loizaga, Manex Agirre. Gaijartzailea: Josu Esnaola.

KANPAMARTXO 2003

Apirilak 6, 13:30ean, *Enandioko Arriaga auzoan*. Bertsolariak: Mañukorta, Sustrai Kolina, Onintza Enbeita. Gaijartzailea: Miren Loizaga.

Denpora kontuk

Jose Luis Ugartekin berbetan egon ostean, hiztegia landuko dugu oraingoan. Bada, denbora kontuez arituko gara hurrengo lerroetan eta urtarok, hilabeteen izenak, astegunak eta denborarekin zerikusia duten beste berba batzuk gurean nola esaten diren ezagutzeko aukera izango dugu.


Testua: **Urtzi Iglesias** / Erretratua: **Asier Mentxaka**

Udebarri heldu da dagoeneko; atzean lotu dira **abendu**, **urtarrille** eta **seselleko** hotzak eta badatoz egun epelak. **Marti**, **aprille**, **mayetza** eta **bagille** hiletan egunak luzatzen joango dira, bagillen hogeitahiru heldu arren. **Ordurik gora**, **ude** etorriko da eta **ordun** bai izango ditugula egun sargaritsuak, **garagarrillen** eta **agostun** batez ere (**árteko urten** modun gertatzen ez bada). **Autonun**, tenperaturek beherantza egingo dute **ostabere** eta **udegoyenaren** edo **urrite**ren etorrera iragarriko digute. **Urtaro** polita da hau basoetatik ibiltzeko eta arbolen kolore ikusgarriekin gozatzeko.

Negun, **arrastik** tristeak izaten dira, **gaue goxeti** heltzen delako; gainera, eguraldia txarra izaten da gehienetan. Uden, berriz, **beluago** etortzen da **illunde**; etxetik kanpo egoten gara egun osoan eta gaue ere, kalean pasatzen dugu **sarriten**. Eta behin baino gehiagotan, **egun zabalkere** ohearen bila joatean harrapatzen gaitu.

Astegunei helduz, aste bitartean **illena**, **martitzena** edo **martitzena**, **eguztena**, **eguen** eta **bariku** ditugu. Behar egiteko egunak dira hauek eta batzuk **asteakabu noz** etorriko zain egoten dira; baina hura heltzean, zapatu eta **domeke ti-ta** baten pasatzen dira. Bestalde, **gaur** eguen bada, **atzo** eguztena izan zen eta **haranegun** edo **harenegun**, **martitzena**; **bihar** bariku izango da eta **etzi** zapatu; **etzilume**, berriz,

“Negun, arrastik tristeak izaten dira, gaue goxeti heltzen delako; uden, berriz, beluago etortzen da illunde”



“Danak jo, azkenak ii”. Horrela dio Getxoko Andra Mari elizan dagoen eguzki erlojuan.

domeke izango da. “Trankil egon, asteakabu guztia daukagu aurretik **ondíño!**” esango luke baten batek.

Eta **asterdín** egunen bat **yayegune** bada? Ordun bai pozten garelara, bezperen beste modu baten goaz beharrera edota ikastera. **Yayegunetan** trankil egoten gara sarriten, **bazkaloste** luzeak izaten ditugu eta erlojuari begiratu barik ibiltzen gara. Beste batzuk (gazteek, gehien bat), egun horietan, hau besterik ez dute pentsatzen: “Lar edan nuen **bart**, ez dut **ostabere** edango”

Hilak

- **Urtarrila:** urtaille, urtarrille
- **Otsaila:** sesille, sesalle, seselle
- **Martxoa:** marti
- **Apirila:** aprille
- **Maiatza:** mayetza
- **Ekaina:** bagille
- **Uztaila:** garagarrille
- **Abuztua:** agostu
- **Iraila:** autónu, irille
- **Urria:** urrieta
- **Azaroa:** semendi
- **Abendua:** abendu

* Gaur egun, bertoko hiztun gehienek “setienbre, octubre, febrero, disienbre...” esaten dute euskarazko aldaeren orde. Euskarazkoak nahiko galduta daude; hala ere, Uribe Kostan jasotako euskarazko aldaera horiek bildu ditugu hemen.

Gurberbake^{2e0}

GURE? AZENTU(V)

Testua: **Xabi Bilbao**

Azentun ganerako laugarren kapitulun esan gendun legez, berba azentudun asko dekoz gure berbakerek. Baia haren gehiago direz azentubakok: esan lei berba “normalak” azentubakok direzela, bai kantidade aldetik eta bai egi-turen aldetik, ze berba azentudun gehienak ez dire berba “sinplek” ixeten, azentu badaraude ixeten da forma edo esangure edo jatorri aldetik zeozer berezi daukelako. Aitetu egingo dogu, lehelengo, zeintzuk direzen horrek berezitasunek, eta gero aztertu egingo doguz, banan-banan, adibidekaz eta dana. Lau berba mota honek ixeten direz azentudunek:

1. Atzizki azentudunekaz batera doazen berbak. Atzizki batzuk azentu bet paraten daude alkartuten daken berban ganen, eta holango atzizki topa leitez bai deklinabiden, bai eratorikuntzen eta bai aditz partizipion atzizkin arren:

<i>kale + ti(k)</i>	-> <i>kaléti(k)</i>
<i>lagune + (g)az</i>	-> <i>laguné(g)az</i>
<i>Berango + ztar</i>	-> <i>Berangóztar</i>
<i>ume + txu</i>	-> <i>umétxu</i>
<i>ikusi + ten</i>	-> <i>íkusten</i>
<i>ekarri + ko</i>	-> <i>ékarko</i>

2. Berba “alkartu” asko. Hau da, berba bi alkarreaz lotute sortu direzen berba askok azentu daraude:

<i>oiñ + azpi</i>	-> <i>óñazpi</i>
<i>etze + alde</i>	-> <i>étzalde</i>
<i>yai + egun</i>	-> <i>yayégun</i>
<i>neba + arraba</i>	-> <i>nebá-arrabak</i>

3. Latinetik eta érderatik datozen berba asko:

<i>dénpora</i>	<i>ánimu</i>
<i>géla</i>	<i>eleméntu</i>
<i>gúre</i>	<i>jénero</i>
<i>espíllu</i>	<i>eskóla</i>

4. Esangure edo mota berezi batzuteko berbak. Esate baterako, esklamaziñok eta espresibidade handiko berba askok azentu daraude lehelengo sílaban: *áiko, éne, áiene, hára, érdu, ápatxe, óspa,...*

Nahiko da gaurkoz. Hurrengon ikusiko doguz honek kasuk astiroago.

akabukopunte@hotmail.com

Zuen berbakeraren gainean zeozer aipatu gura baduzue, zalantzaren bat edota proposamen bat badaukazue...



orain
hamabostean
behin

aldizkaria
etxean
jaso nahi
baduzu

94 491 13 37

dirulaguntzak

Boluntzarreta
BBK 2095 0121 10 9102483676
sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria
171 posta kutxa / Amezti 6, 4. solairua 5.
bulegoa / 48990 Getxo / ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

Euskara ikasi dute

Loreto Larumbe (Algorta)



—Noiz hasi zinen euskara ikasten?

—Orain dela bi urte.

—Zein mailatan zaude?

—Hirugarren eta laugarren mailen artean nago.

—Non ikasten duzu?

—Algortako Lehendakari Agirre Euskaltegian. Baina Erromoko Euskaltegian ere ikasi nuen.

—Zerk bultzatuta ikasi zenuen euskara?

—Alde batetik, euskara gure hizkuntza izateak eta bestetik nik, Nafarra izanda, uste dudalako hemen han baino aukera gehiago daudela euskara ikasteko.

—Zer da gehien kostatzen zaizuna?

—Hitz egitea batez ere.

—Orain arte ikasitakoa erabiltzen duzu?

—Bai, saiatzen naiz telebista eta irratia euskaraz ikusten edo entzuten. Nire pisukidekin ere ahaleginak egiten ditut euskaraz hitz egiteko, baina kostatzen zait.

—Zelan definituko zenuke euskara?

—Oso hizkuntza polita eta berezia da, ez daukalako beste hizkuntzekin alderatzerik. Komunikatzeko modu bat da eta euskararen bitartez kultura hobeto ezagutzen da. ^m

EBPN

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia abian da honezkero Getxon

Martxoaren 15ean, Getxoko Udalak "Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia" aurkeztu zuen euskalgintzan dabilzan herritarren aurrean San Nikolaseko liburutegian. Bertan, euskararen aldeko plan hau osatzeko erabiliko diren bideak eta bitartekoak azaldu zituen Euskara Zerbitzuak.

Getxoko Udalak euskararen aldeko apustua egin du eta horren lekuko dugu martxoaren 15ean aurkeztutako "Euskara biziberritzeko Getxoko plan nagusia". Plan hau datozen lau urteetan (2003tik 2006ra bitartean) hizkuntzaren normalizaziorantz hurbiltzen jarraitzeko egina da eta Getxoko Udalarari eta gainerako herri-aginteei hizkuntza-politika egiten lagunduko dien oinarritzko tresna izango da. Aldi berean, agiri irekia izango da, eta behar izatekotan, egokitu ere egingo da.

Planak helburu jakin bi ditu: alde batetik, euskaraz bizi gura duten herritarrei horretarako aukerak eskaintzea, behar diren hizkuntza-politikako neurriak hartuz eta bultzatuz. Eta bestetik, bai norbanako mailan, bai gizarte arlo guztietan eta baita erakundeetan ere, euskara erabat berreskuratzea, euskararen aldeko urratsak areagotuz.

Bestalde, baditu beste helburu estrategiko batzuk ere: euskararen transmisioa bermatzea; hezkuntzaren bidez, helduen euskalduntze-alfabetatzearen bidez eta familiaren bidez euskara erabilera-eremu guztietara zabaltzea (administrazioa, teknologia berriak, lan mundua, aisialdia, kirola, erlijioa) eta azkenik, hizkuntzaren kalitatea lantzea (liburugintza, publizitatea, kultura...).

Esan dugun legez, plan hau irekia da eta herriko gizarte eragileen iritzia ere hartu gura ditu. Beraz, ekarpenak, iradokizunak eta

ideiak emateko aukera ere izango du herriak.

Honekin batera, euskararen aholku batzordea sortuko du Udalak; bertan, alkateak, euskara zinegotziak, euskara zerbitzuko teknikari biek eta Getxon hizkuntza-normalizazioan eragina duten esparruetan esanguratsuenak diren zenbait pertsonek egingo dute behar, eta ondoko hauek izango dituzte eginkizunak: euskara biziberritzeko plan nagusia egokitzen lagundu, plan estrategikoa egiteko aholkuak eta ideiak eman, eta aipatutako gizarte eragileek egindako ekarpenak aztertu. ^m

Harremanetarako: 94 491 14 41

Planaren aurkezpen eguna



«Planak helburu bi ditu: euskara herrian berreskuratzea eta euskaraz bizi gura duten herritarrei horretarako aukerak eskaintzea»

Urbe Kostako Euskara Zerbitzuak zure zerbitzura

Getxo: 94 491 14 41 • Leioa: 94 400 80 44 • Erandio: 94 489 01 40 • Berango: 94 668 00 08 • Gainerako herriak: 94 676 26 74

TRUK


Oparirik Omenak!

EUSKAL MAKILAK

GAZTAINONDO
MAKILA 149 €MIZPIRONDO
MAKILA 185 €TOALLA-JOKOA
3 TOALLAZ OSATUTAKO JOKOA:

- 35x50, 50x100, 70x140
- Koloreak: granatea, berdea, horia, urdina
- 100% kotoia
- 500 gr. m²

28 €

METALEZKO
ERLOJUA 52 €

ARGIZAIOLA

- Altuera: 45 zm.
- Zabalerak: 15 zm.

70 €

ELENA CORCIN ARTISAUAK
ESKUZ EGINKAKDEI IEZAGUZU ETA EGUN GUTXI BARRU
ZURE ETXEAN3,69 €
BIDALKETA GASTUAK

dentu!

TRUK

902 45 12 12

IRUÑEA • EUSKAL HERRIA



gaizka escudero / villabotas-ekoa

Txipiroiak tipula eta onddo beltzekin

Abrako txipiroia estimatua bezain eskasa da. Hala ere, hura lortzeko behar den ahaleginak merezi duelakoan nago ni. Hasteko, beraz, txipiroi preziatu hauek lortu behar dira, eta ondorengo ondo garbitzea da. Irinetik pasatu eta gero oliba oliotan salteatu. Nik berakatzagaz batera egiten ditut, hasieratik zapore hau har dezaten. Txipiroi guztiak salteatu ondorengo olio berean, julianan zatitutako tipula egiten jarri su ahulean. Tipula eginda dagoenean, aurretik salteatutako txipiroiak eta koñiak txorrotada bat (sukaldariaren gustura) eta arrain salda apur bat gehitu. Onddo beltzak aparte salteatu behar dira eta egindakoan bestearekin nahastu. Ez zaizue damutuko! ^m

osagaiak (bi lagunentzat)

800 gramo Abrako txipiroi • 400 gramo onddo beltz • hiru kipula koñaka • oliba olio • irina • gatza • arrain salda



itsaso arana / jolastoki-koa

Ardoa edateko tenperaturak

«**Temperaturak eragin handia dauka ardoa edateko orduan; ardoaren ezaugarriak ere alda ditzake**»

- **Ardo zuri eta lehorrak**
8°-10°tan edan behar dira. Zenbat eta tenperatura altuagoa, gehiago igarriko dugu alkohola; tenperatura baxuagoetan, garratzasuna.
- **Ardo zuri gozoak**
6°tan gutxi gorabehera edan; tenperatura honetan, espresio gozoa eta frutazkoa nabarmentzen da.
- **Ardo gorriak**
9° eta 12° bitartean, beltzetik ala zuritik, zeinetik hurren dauden begiratuta.
- **Ardo beltz arin eta gazteak**
12° eta 16° bitartean euren aroma eta egitura nabarmentzeko.
- **Ardo beltz gorpuzdunak**
14° eta 17° bitartean euren gorputza hobeto igartzeko.
- **Ardo beltz zaharrak**
17° eta 18° bitartean, horrela euren bouquet eta espresioa hobeto antzemango ditugu.

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?
herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!
Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Norte jatetxea
adituak gara makailo eta kazolatxoak prestatzen
Bilbo-Plentzia errepeidea
Elexalde 9, Barrika - Tlf: 94 677 30 09

Zurikaldai
JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T: 491 14 87 48990 NEGURI
KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO

Laiak taberna euskal museo txikia Sopelan



Argazkian, Jon Arrizabalaga "Arri", tabernako jabeetako bat

2001eko apirilaren 25ean Sopelako lau lagunek euskal giroan oinarritutako taberna zabaldu zuten. "Irlandar giroko tabernak modan daude, baina guk gertuagoko gauza bat egin gura genuen" azaldu zigun jabeetarikoa den "Arri"k. Taberna leku paregabea dago: Sopelako udaletxearen atzean dagoen oinezkoen alderdi batean hain zuzen, eta terraza zabala jar daiteke bertan.

Bestalde, euskal kulturaren eta ohituretan sano ezagunak diren tresnez apainduta dago (soinua, panderoa, uztarria, antzina-ko argazkiak edota tabernari izena ematen dion laia). "Arri"k azaldu zigun moduan, "askok esaten digute gure taberna euskal museo txiki bat dela".

Jatekorik ere badago bertan: egun osoan pintxoak (otarteko txikitxuak, sandwichak edota mota askotako tortilla pintxoak); bokatak eta hanburgesak ere bai iluntzean (arrakastatsuen, oilasko, hawarti gazta eta piper berdeak dituen otartekoak); eta *nazioak* asteburuetan. Jateko gozo hauen "erruduna" Asier Arroyuelo sukaldaria dugu (duela hiru bat urte, Txileko Euskal etxean sukaldari aritu zen). Horrez gain, asteakabuetan kontzertuak eta bertso-saioak ere prestatzen dituzte noiz edo noiz. ^m

LAIK TABERNA
Bentatxu 2, Sopela
Telefonoa: 94 676 03 28

jakingehiago



Garagardoa > Pagoa Bertako zerbeza

Bertoko desagertu ostean, Pagoa da gaur egun Euskal Herrian ekoizten den garagardo bakarra. Oartzunen egiten du Euskal Garagardoa enpresak, eta duela gutxi hasi gara eskualdeko tabernetan ikusten. Hiru zerbeza mota atera dituzte merkatura: Baigorri (red ale), Orhi (pilsen) eta Zunbeltz (Stout), guztiak 33 zentilitrotako botiletan. Alkohol kopuruari dagokionez, Baigorrik 4,6 grado dauzka, Orhik 4,9 eta Zunbeltzek 4,3. On dagizuela.

Bilboko Iturribidekalean
BAR?LA?ESPUE


Ostegun kulturalak Puntako

elkartoki eta giro ja

12:00tatik 15:00ak arte
18:00tatik 22:00ak arte

Asteburuetan: 18:00tatik aurrera

tel: 94 415 05



jateko

- urdaitegia
- frutadenda
- elikagaiak

Amezti 4 -Tf.: 94 491 06 54
ALGORTA



Taberna Berni

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493




aldizkaria
etxean
jaso nahi
baduzu

94 491 13 37

UK Uribe Kostako Aldizkaria

171 posta kutxa / Amezti 6, 4. solairua 5. bulegoa
48990 Getxo / ukaldizkaria@telefonica.net
tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31

KEKO



GERRA ISTORIO BAT





prentsa ¥ aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T: 94 430 69 42 /ALGORTA

EREAGA

Bidaiak
Autobusak

T: 94 453 08 16 - 609 405 988
Faxa: 94 453 33 34


GETXO

OLATXO

altzariak
dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11 Juan Bautista Zabala, 5
AREETA ALGORTA
T.: 94 464 89 94 T.: 94 491 13 94

VILLABOTAS JATETXEA



Menu merke eta bariatuak
Especialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

[horoskopoa]

URA

t



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Denbora behar duzu bikotekidearekin
jesartzeko eta bere sentimenduei buruz
berba egiteko. Diru aldetik egonkorta-
suna da nagusi baina lanean zure one-
rik atera gura zaituzte. Azken boladan
egindako dietarengatik osasuntsuago
egongo zara.

AITZURRA

t



(Martxoak 21 apirilak 19)
Maitasuna zure zain dago baina ez
dizugu esango non dagoen, hori zure
esku dago eta. Begiak zabal-zabalik
eduki itzazu. Oso trebea zara dirua
non dagoen asmatzen, akzioetan
inbertitu. Eztarria zaindu ezazu.

GARIA

t



(Ekainak 19 uztailak 18)
Zure maitasun kontuak ez dira berez
konponduko, bi alderen kontuak dira
eta. Berba egizu. Kontuz ustekabeko
gastuekin, ugariak izango direlako.
Jarrera ona erakutsiko duzu lanean.
Sendagileak azterketa batzuk egitea
gomendatuko dizu.

META

t



(Irailak 17 urriak 16)
Beti dakizu zer gura duzun eta gainera
berehala lortu gura duzu. Ez itxaron
gehiago eta bikotekideari esan beharre-
koa esan. Ez larritu, zure ekonomia laster
berpiztuko da eta. Bizkarrean mina
baduzu behar den bezala jesar zaitze.

OTSOA

t



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Dirua lortzeko duzun erraztasunak
egun askoko bidaia egiteko aukera
emango dizu. Aspaldidanik martxan
daukazu negozio bat itxi dezakezu,
behintzat horri bueltak ematen ari
zara azken aldian. Nerbioetatik nahi-
ko txarto egongo zara.

HOSTOA

t



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Nahiko lotsatia zarenaz, zutaz maitem-
indu den pertsona horrengana hurbiltzeko
beldurrez zaude. Diru apurtxo bat irabaz-
teko aukera handia da. Lanean gelditu
barik egongo zara. Gaixo zaudela uste
baduzu medikuarengana joan.

LASTOA

t



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Maitasuna ez da zientzia, baina batzue-
tan gehiago lor daiteke konkistatu nahi
duzun pertsonari kasu gutxi egiten
badiozu. Diru asko gastatuko duzu
baina baita laster berreskuratu ere.
Lanean arazotxoak sor daitezke.

HAZIA

t



(Urriak 17 azaroak 15)
Bikotekiderik baduzu datozen eguno-
tan bikain pasatuko duzue. Ordena-
rekin duzun seta hori ondo etorriko
zaizu lanean, zenbat balio duzun era-
kutsiko dizulako. Umore txarrez egon-
go zara zure osasun eskasaren erruz.

ADARRA

t



(Otsailak 19 martxoak 20)
Maitemindu zaitze, motel, inoiz ez
delako berandu. Ez izan hain beldurtia
eta eutsi gogor agertzen zaizkizun
aukerei. Dirua gastatzea gustatzen zaizun
arren, erreprimitu apur bat. Hantetan
mina igarriko duzu eta nekatuta
sentituko zara.

EGUZKIA

t



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Iazko udan izan zenuen harreman motz
horri ez egin kasu handiegirik. Dirua-
rekin zerikusia duten gaiekin ez burua
berotu. Kontraturen bat sinatzekotan
bazaude argi ibili eta ziurtatu dena legearen
arabera dagoela. Kirola egin argaltzeko.

IRATZEA

t



(Abuztuak 18 irailak 16)
Zure seduzitzeko boterea goruntz doa,
horregatik maitaleak soberan izango ditu-
zu. Ondo aukeratu. Ez izan hain materia-
lista, dirua ez delako dena munduan.
Nagusiarekin berba egin gura baduzu,
ondo neurtu esan behar diozuna.

NEGUA

t



(Azaroak 16 abenduak 20)
Azkenean lortuko duzu: hain luzaro
eskatzen ibili ondoren, zure bikotekidea
losinak egiten hasiko da. Bejondeizula!
Finantzekin zer ikusia duten aholku
garrantzitsuak jasoko dituzu. Zaindu
aspaldidanik duzun katarro hori.



mungia

oKINdegia

Algortan badaukagu
artisaunen ogia
izen eta jatorriz
da "ogi mungia".

Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA

Egunkaria

aurrera!

Orain inoiz baino gehiago!

Egin zaituz harpidedun

deitu
deitu

943 30 35 55 / 943 30 35 54
635733389 / 635733388

telefonoetara

edo bidali zure datuak eta telefonoa helbide hauetara:

Martin Ugalde Kultur Parkea • Eraikin zuria • 20140 ANDOAIN


www.egunero.info/harpidetza

Euskarak behar zaitu **Egunero**

denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATUAK



Ezker eskuin

1. Industriak eraldatzen dituen gaiak. 2. Jausiak. Letra grekoa. 3. Hartuemanak. 4. Euskal Herri hegoaldeko ibaia. Estimatu handiko zur. 5. Nagoela. Zah., zakur. 6. Nork pluralaren araberako atzizkia. ... Robles, Lapurdiko txiste-kontalaria. Bat. 7. Enea. Bizkaieraz, pikeak. 8. Gauza. Saudi Arabiako hiriburua. Lehen bokala. 9. Zero. Gipuzkeraz, gara. Ardi, hitz elkarketan. 10. Arratsko otordu. Landu, apaindu.

Goitik behera

1. Lehenbizikoa. 2. Ebazpean, deliberoa. Euskal alfabetoko letra madarikatua. 3. Horkoari. Lituaniako hiriburua. 4. Iparraldean, esaiozue. Erbioaren sinbolo kimikoa. 5. Ba..., haiei banu. Edateko gogo. 6. Animalia konkordun. Kasik. 7. Kalitua, hila. Oxigenoa. 8. Iodoa. Nafarroako ibilgailuetan. Niri, zuen. 9. Nafarroako herria. Bokala. Radona. 10. Kokoriko jari.

Soluzioak

U	D	N	O	I	R	A	V	A	R	I	A	K
T	V	A	R	A	V	G	E	R	O			
V	A	R	A	V	A	R	I	A	K			
K	A	V	A	R	I	A	K					
I	Z	T	U	G	U	K	E					
R	O	V	L	E	Z	I	N					
O	N	A	B	E	O	E	R					
K	N	A	M	A	R	E	H					
R	O	K	R	I	A	K						
A	K	L	E	N	G	A	I					

Luma
EUSKALDUNON
denbora-pasa
eta hitz jokoen
hilabetekaria

Zozketa mundiala*
harpidedunen artean
8 eguneko kruzeroa 2 lagunentzat
Mediterraneoan (otorduak barne)

* Zozketa 2003/03/31n egingo da

BIDALI ZURE DATUAK ETA IZAN ZAITEZ LUMA-KO HARPIDEDUN

Luma
BAGABIGA, E.M.E.
Istillaga plaza 2 behea. 307 PK-20304 IRUN
Tfnoa: (+34) 943 62 95 64 - (+34) 943 63 08 83
luma@xedera.com / www.xedera.com



Urtzi Iglesias

Beca Grafic lantegiko futbol taldea, 1971

Herri honetan hain hedatuta dagoen apustuzaletasunari eutsiz, Beca Grafic eta Cuadrimetal lantegietako beharginek desafioa egin zioten elkarri: baietz batzuek besteak menderatu futbol partiduan. Norgehiagoka 1971n jokatu zen Areta eta Leioa artean zegoen Ibaiondo futbol zelaian. Eraitza 7-1 Cuadrimetal-ekoen alde. Beraz, argazkian azaltzen direnak galtzaileak dituzue. m

Zutunik: José Luis Zabala, Pepe Ruiz, Manolo Canela, Mariano Zarzuelo, Juan Atxutegi, Juan José Inoriza.
Belauniko: Pablo Iglesias, José Antonio Vazquez, Javier López Isla.

* Oharra: aldizkarian argitaratzeko argazki zaharrik bazenu, jarri zaitetz mesedez UKrekin harremanean: 94 491 13 37

asmatu eta irabazi > **ARGIA** astekariaren opariak



Nor da?

- Bilbon jaio zen 1953. urtean
- Azken hamar urteotan 15 bat filmetan parte hartu du
- Blas izeneko kazetaria izan zen telebistan orain gutxi

> Aurrekoaren erantzuna: Xabier Euzkitze
> Irabazlea: * **Irantzu Mugeta (Sopela)**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:
UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
ukaldizkaria@telefonica.net / faxa: 94 491 58 31

Argia astekariaren hiru hilabeteko harpidetza doan



Zazpiak Batman kamiseta

www.argia.com

JOXERRA GARTZIA > EHUko irakaslea

“Zuribeltzeko pentsamenduek beldurra ematen didate”



Zure izaera definitzen duen ezaugarriren bat...

Pertsona nahiko ansiosoa naiz.

Zein da zure akats edo maniarik nabarmenena?

Ansiedadearen inguruan ere, esaterako, bilera batean banago eta minutu batean inork ez badu ezer esan nik hitz egin behar dut.

Zure haurtzaroko oroitzapen bat...

Legazpin kokatzen ditut batez ere. Bi datozkit burura, bata baserriaren ondoan zegoen zelaian kokatzen dut, bertan adin guztietako umeak batzen ginen jolasteko. Bestea, azken bi urteotan obsesionatuta narabilen irudi bat da, eta hau da, garbitutako izarak nola jartzen zituzten belardian eguzkitan sikatzeko, eta oroitzapen honek iradokitzen duen esanahia ez dut ondo harrapatu. Poema batzuk egin ditut irudi honen inguruan egiarekin gonbaratuz, baina ez dut esanahi osoa lortu.

Zein da gehien miresten duzun pertsona?

Bertolt Brecht, bere obran eta bizitzan hartutako koherentziagatik.

Zer da jarraitzaile batek esan dizun gauzarik ederrena?

Bueno...behin eskola ematen ari nintzela, bazegoen ezagutzen ez nuen koadrila bat. Atsedena egitean esan zidaten haien irakaslea ez nintzela, baina nire klasera etorri zirela haien lagun batek esan zuelako eskola politak ematen nituela. Ondarrutik etorri ziren nire eskolan egoteko eta nire kurrikulumean jarriko nukeen lehenengo gauza izango litzateke.

Zein komentariok egin dizu kalte gehien?

Egun hauetan gertatzen ari dena kontuan hartuta eta Egunkariaren itxarekin batera, hainbat komunikabidek edozein gauza esateko estatusa aprobetxatzeak kalte egiten dit.

Zein da zure libururik gogokoena?

Etikaren ikuspuntutik eta oso motibo pertsonalengatik *Keuner jaunaren kondairak*, Brechtek idatzitakoa.

Abesti bat... Bob Dylanen edozein abesti. Euskarazkoetan Xabier Leteren *Nik ez dut amets handirik*.

Eta film bat? Berrien artean *El hijo de la novia*.

Zein leloekin egiten duzu bat?

Zerbait beharrezkoa baldin bada egin behar da, ezinezkoa bada ere.

Zertan edo norengan sinisten duzu?

Gero eta gehiago adiskidetasunean.

Zerk ematen dizu beldurra? Orohar pentsamenduaren sinplifikazioak, zuri-beltzeko pentsamenduak. m

JOXERRA GARTZIA- Inguruan dituen pertsonak aparte, pilotara jokatzeko eta bertan tantoak egiteak egiten du zoriontsu Joxerra. Legazpiar honek Filosofia eta Kazetaritza ikasi zuen eta gaur EHUko irakaslea da Leioan. Oso ezaguna da EITBn berak egindako lana. Sei urte eman zituen telebistan *Hitzetik Hortzera* bertso saioa aurkezten eta beste bost irratian. Orain dela hiru urte, ostiral goizero berba egiten du Euskadi Irratian. Hau gutxi balitz, poemak ere idazten ditu. Bertolt Brecht-ek idatzitako liburu bat euskaratu du: *Keuner Jaunaren kondairak*.